

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-10-29  
ASTELEHENA  
383. ZENBAKIA  
9. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Arbasoen bizimodua ezagutzen

Bisita gidatuak  
Arrasaten barrena | 12



Talde polita batu zen zapatuan. | J.A.

Euskal Herriko Trikitixa Eguna  
arrakastaz ospatu dute Bergaran | 25



Txistulariak, gazteak  
erakartzeko ahaleginetan | 24



Aramaioko erretiratuek kalean  
ospatu dute euren eguna | 10

## Elurraren lehen keinua

Ohi baino goizago ikusi dugu aurten uda osteko lehen elur geruza:  
zuhaitzak guztiz biluzteke daude; eta ganadua, mendian | 4



Duru inguruan,  
Arantzazutik gora,  
behorrek elurretan  
sartu behar izan zuten  
muturra, jatekoa  
bilatzeko.

JULEN IRIONDO

## Mondrak hiru gol egin dizkio Aloñari Azkoagainen

Eguenean derbia izango da berriaz:  
Mondra-Bergara | 18



Bi jokalarri baloia lortzeko lehian. | J.A.

## Natra-Oñatik garaipenarekin hasi du EBA liga, defentsan egindako lan onari esker

| 20

## Urriko sariak Eta zuretako badira?

► Zoaz 17. orrialdera.

# Boluntarioen lana ez da ezer kostatzen eta asko balio du

- ▶ Boluntarioria kanpaina hasi dute bost elkartek
- ▶ Bailarako azoketan hurbilduko dira jendearengana
- ▶ Borondatezko lana ezinbestekoa da elkarteendako

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Lagun hurkoaren alde musu-truk lan egiteak oso ospe ona du, baina hitzetik ekintzetara pasatzea kostatzen da zaila dio errealtateak. Hala, 2007. urteko Eurobarometroaren arabera, Europako Batasuneko herrialde kideetan, batez beste, biztanleen laurdenek zioten elkarrekin batean parte hartzen zutela edo boluntarioak zirela; Espainian, %18k. Horrez gain, europarren %75ek erantzuten zuten lagun hurkoari laguntzea eta borondatezko lana egitea garrantzitsua zela, euren iriziz.

Baina, kontrako aldean, Europako gazteen %2ek bakarrik esan zuten denbora librean boluntario lanak egiten zituztela; aldiz, erantzunen arabera, boluntario zireneko izan gura zuten gehienak erretiratuak ziren. Badirudi, hortaz, boluntario izateko joera krisian dagoela.

Horri buelta eman guran, Debagoienean diharduten bost elkartek indarrak batu dituzte eta jendea boluntario egin dadin animatzeko kanpaina egingo dute kalean. *Parte hartu eta eraldatu* du izena, eta Gurutze Gorriak, San Juan de Dios ospitaleak, Aita Menni ospitaleak, Hurkoak eta Nagusilanek egingo dute.

Debagoieneko plazak eta azokak aukeratu dituzte horretarako. Lehenengo aldiz joan den zapatuan ziren agertzeak, Aramaioko erretiratuak jaiko azokan. Hurrengo hitzorduak hauek izango dira, eguraldiak laguntzen dien neurrian: azaroaren 9an Eskoriatzan izango dira, eta 10ean, Oñatin. Gainera, eguraldi txarrak zapuztu zizkien beste hiru agerraldiak berriz antolatuko dituzte: Arrasateko azokan ibiltzeak ziren urriaren 19an, Bergarakoan 20an eta Aretxabaletakoan 22an.

**ESANAK**

**"Helduei dei berezia egiten diegu, gurekin boluntario izan daitezen"**

SANTI SARMIENTO  
GURUTZE GORRIA

---

**"Nagusiei, gutxituei... laguntzen diegu, eta 10 urte daroagu"**

TOMAS ATXA  
NAGUSILAN

---

**"Boluntarioek bizipoza ematen diete gaixoei, eta hori behar dugu"**

ROBERTO GARTZIA  
SAN JUAN DE DIOS

#### Aukeran, Telepizzan

Orain dela urte gutxi batzuk, Gipuzkoako boluntario tasa zertxobait handiagoa zen: %10-12ren bueltan zegoen. Boluntario izatea krisian dagoen arren, horren arrazoia ez da 2007a ezkerotik mendebaldeko gizartearen bizi den krisia; ez du hala uste, behintzat, Gizaldek, boluntario-lana sustatzeko eta laguntzeko Gipuzkoako elkarteak. Horko ordezkari Miren Gurrutxagak hauxe dio: "Krisiaren eraginez den? Ez nintzateke hori esatera ausartuko. Gaur egungo bizitza estiloan, besteen

alde doan lan egitea ez dago modan. Ikastetxeetan boluntarioria eza-gutarazteko programa bat dauka, eta gazteengan ez da gogo hori ikusten; errazago ikusten dute Telepizzan ibiltzea pizzak banatzen, nahiz eta oso gutxi irabazi, boluntario izatea baino".

Horregatik, *Parte hartu eta eraldatu* kanpaina zabala, orokorra da, Gurrutxagak azaltzen duen moduan: "Elkarte horiek ez dira hain justu euren boluntario bila bakarrik ibiliko, baizik eta, orokorrean, jendea boluntario izatera animatzen".

#### Krisiak kaltetutako familiak

Edozein modutan, Debagoieneko elkarteek ere, beharra izan, badute; boluntario beharra beti dute, etortzen den edozein beso-zabalik hartzen dute.

Batzuek premia zehatzak dituzte. Gurutze Gorriko Boluntario arloko arduradunak, Santi Sarmientok, honela diosku: "Gurutze Gorria helduei eta nagusiago direnei zabaldu gura diegu". Eta horiek lagun dezaketen arlo berriak aipatzen dizkigu: "Debagoienean gizarte lana egiten hasi gara: batetik, laguntasuna, konpainia egitea; eta, bestetik, azaro edo abendu inguruan, udalekin batera, krisiak bereziki



Nagusilanekeko boluntario batzuk Donostiatik etortzen dira zaharren egoitzetan musika eskaintzeko.

kaltetutako familiei laguntzeko programa hasi gura dugu".

Gazteek ere ondo baino hobeto hartuko dituzte, izan ere, "lantaldea berritzen joan beharra" dago noizean behin.

#### Musika eta opariak

Boluntario izan nahi duten nagusi askok Nagusilanera jotzen dute. Elkarrekin oso osasun onean dago, eta bailarako herri guztietan dago, Gatzagan eta Aramaioren izan ezik, han nagusien egoitzarik ez dagoelako. Eskoriatzan aurten sortu da Nagusilaneko boluntario taldea, sei lagunekin; Aretxabaletan, 11 dira dagoeneko. Bestalde, aurten 10 urte dira Arrasaten hasi zirenetik, eta gaur egun 44 boluntario dabilta, 40 emakume eta lau gizon. Denarik egiten dute: zaharren egoitzetara joaten dira bisita egitera, bingoa antolatuz, ezinduen mezataria errotatzen... Aita Menni ere joaten dira astean behin. Nagusiei ez ezik, adimen-gutxitasuna dutenei ere lagun egitera

joaten dira, Zigorrolan dagoen Goienetxe Fundazioaren eguneko zentzora.

Premia batzuk ere baditu Nagusilanek, Tomas Atxak dioen moduan: "Gastuak ere baditugu. Hala, urtean bi aldiz Donostiatik datoz Nagusilaneko beste bi lagun, musika taldea, zaharren egoitzetan jotzera, eta igual 20 bisita egiten dituzte Debagoienera. Horrez gain, nagusiendako opariak zozketatzen ditugu kontzertutxoak eta gero. Hori dirua da".

Dena dela, ez diote ahalegin berezi hori egiteari utziko Nagusilanekoek: "Opariak banatzea oso-osoinportantea da erresidentzian daudenentzako; momentu inportanteena!", esaten du Tomas Atxak. Eta eskerrak ematen dizkio La Caixa aurrezki kuxari, ematen dien dirulaguntzazatik.

#### Alde gizatiarragoa

Jendea faltan ez duten arren, Nagusilanekoek ere bat egin dute *Parte hartu eta eraldatu* kanpainarekin, helburu orokor hura aintzat hartuta. Tomas Atxak dei berezia egin gura dio jendeari San Juan de Dios ospitale psikiatrikoarekin lan egin dezaten: "Gura baino boluntario gutxiago dituzte, eta horien bila gabiltza", esaten du Atxak.

Arrasateko San Juan de Dios ospitalean ere, boluntarioak ezinbestekoak dituzte. Boluntario-lan arloa errotan du Roberto Gartziak, eta boluntario berriak "beti ondo" etortzen zaizkiela esaten du. *Parte hartu eta eraldatu* kanpainaren bidez, boluntario gehiago lortu gura dituzte, baina ez hori baka-

#### BOST ELKARTE, KANPAINAREKIN BAT

ERAKUNDEA	ARLOA	TELEFONOA
<b>San Juan de Dios</b>	Gaixo psikiatrikoak	943 79 39 00
<b>Aita Menni</b>	Psikiatria, ezinduen...	943 77 44 11
<b>Gurutze Gorria</b>	Sorospena, gizarteratzea...	943 76 55 76
<b>Hurkoa</b>	Adinekoak, mendekoak...	943 46 89 56
<b>Nagusilan</b>	Nagusien boluntarioria	943 47 50 21
<b>Gizalde</b>	Boluntarioak orientatu	943 42 80 13



kaintzeko. Argazkian, Iturbiden egin zuten emanaldi bat. | GOIENA

rrik: San Juan de Dios gehiago ezagutarazi nahi dute, Gartzia dioden moduan: "Arrasaten bagaude bi ospitale psikiatriko, 100 urtetik gora daroagu hemen, baina Arrasaterekin eta inguruarekin oso gaizki komunikatuta gaude. Beraz, gure burua agertu nahi dugu Debagoienean".

San Juan de Diosen behar zehatzen inguruan, hauxe dio Gartzia: "Buru-osasunean, boluntario oso-oso garrantzitsua da: uste faltsuak eta beldurrak gainditzen laguntzeko, gaixoak jendartean sartzeko... Premia hori ez da inoiz desagertzen. Langile aldetik ondo gaude, baina boluntarioak alde gizatiarragoa ipintzen du eta, gainera, eguneroko gauzak, planifikaziotik kanpokoak egiteko aukera ematen die. Horrexek egiten digu huts".

Askotariko gauzak egin ditza ke boluntarioak San Juan de Diosen gaixoen alde: "Orain, boluntario batek antzerki taldea aurrera eroan gura du. Beste gaixo talde bat igeri egitera joaten da, baina begiraleekin, langileekin bakarrik joaten dira, eta boluntarioak ere ondo etorriko lirake. Margolaritza ere egin daiteke, denbora libre betetzeko edozein ekintza, paseatzera joan, lagun egin... eta gaixoari jakinarazi berari lagun egitera borondatez doala, gura duelako".

Roberto Gartzia jendea animatu gura du, denondako aukera dagoelako: "Norbera bakarrik edo taldeka etor daitezke, gaixo talde batekin egoteko, adibidez.

#### DATUAK

# %25

BOLUNTARIO

2007ko Eurobarometroak zioenez, Europako Batasunean, batez beste, biztanleen laurdenak ziren boluntarioak.

# %8

BOLUNTARIO

Gizalde elkartearen arabera, Gipuzkoan, 100 biztanletik 8 bakarrik dira boluntario. Tasa txikitzen joan da azken urteetan.

Orain, multzo hartako bost elkarrek eutsi diote asmoari, eta kanpaina osatu. Jakina, euretariko edozeinekin lanean hasteko aukera dago, baina boluntario izateko interesa izan eta beste arlo bat bilatu nahi duenak jasoko du horretarako orientazioa: Gizalde elkar-tearen zeregina horixe da.

Gizaldeko Miren Gurrutxagak onartzen du, Donostian izanda, "Debagoiena urruti samar" gelditzen dela. Hala ere, telefonoz edo e-mailez zerbitzua ematen "saiatzen" dira; eta Debagoieneko jendea bulegora joan zaiela ere esaten du. Gizaldek boluntario izan gura duen horrekin berriketalditoxa egiten dute. "Elkarrizketa horretan, ikusten dugu zerk mugiarazten duen boluntario izatera, ze denbora duen, zeren bila dabilen, non bizi den... eta horren arabera saiatzeko gara elkarre batera edo beste batera bideratzen", esaten du Miren Gurrutxagak.

Borondatez jarduteko joera gaur egungo bizimoduak urratu duen honetan, grina horri indar berria emateko aukera dute debagoienarrek. Eta ez bakarrik oraingo Debagoienarendako, baizik eta seme-alaben belaunaldirako. Izan ere, hauxe esaten du Gurrutxagak: "Europako herri aurreratuenek beharbada guk baino kontzientzia handiagoa dute. Boluntariotza gure aurrekoengandik jasotzen dugun zerbaite da, transmititu egiten da. Horregatik, gure aurrekoak guk horretan ikusten ez baditugu, guk ere ez dugu joera hori izango".

Adin aldetik, 22 eta 90 urte arteko jendea daukagu, oso adin-tarte zabala, hortaz". Gartzia iritziak, boluntarioek, herritar arruntek, "berritasuna ekar dezakete, eta bizipoza erantsi diezaiakete gaixoei".

#### Gurasoengandik datorrena

Europar Boluntarioen Urtea izan zen 2011. Horren aitzakian bururatu zitzaizen Debagoieneko hainbat elkarteri boluntario-lana sustatzeko kanpaina egitea. Pauso batzuk eman zituzten, baina asmoa horretan gelditu zen, orain arte.

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)

**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757

[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)

**Alda ezazu zure sukaldeko zorua obrarik egin gabe. 25 urteko bermea. Informa zaitez!**



**FAUS**  
**blue**

Sukalde eta bainuentzako zoru laminatu berezia

**LOFT**  
**GOA**

1190x2024x8  
ACB

**LOFT**  
**TOSCANA**

1190x2024x8  
ACB



Iker Arregi oñatiarra Durun –Arantzazutik gora–, Haritz eta Sara seme-alabekin, elurraz gozatzeko gertu. | JULEN IRIONDO

## Iragarpenak betez, elurrak mendi tontorak zuritu ditu

Zapatu arratsaldean hasi eta domeka goizera bitartean elurra bota zuen 800 metrotik gora, baita gurean ere

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Azaroan sartzeko egun gutxi batzuen faltan, ohi baino goizago, zurututa esnatu ziren mendi inguruak atzo; zapatuan bertan, 17:00etarako, Urbiatik Arantzazurako bidean, elurra zela kontatu zigiten fondako ugazabek. Domeka goizerako 10 bat zentimetro geruza bazen gutxienez.

Astebururako iragarpenak 800 metrotik gora elurra egingo

zuela zioen arren, "sorpresa" izan zen hein baten, baina esaera zaharrei erreparatuz gero, bada bat Domu Santu Eguna eta toki garaietako elurra lotzen dituen bat. Arazorik eragiteko adina ez du bota, gainera, eta elur-zaleek "denboraldia hasteko" aprobetxatu dute: mendira igo eta elurra zapaldu, lehen pilotak egin edo, zergatik ez, eskiekin lehen jaitsierak egin; Durun baziren arrastoak.

**Gehiago egiteko itxuririk ez**

Baina elurra etorri da eta joan da, Pello Zabalaren esanetan, gehiago egiteko itxuririk ez dauka epe laburrean: aste honetan bertan, prezipitaziorik ez da aurreikusten eguenera arte, eta udazkenean hegoaldeko haizea ibiliko da iparraldekoa baino gehiago. Ganaduari dagokionean, Miel Arregi artzain oñatiarrak esan digu ez dagoela arriskurik.

## Murrizketa sozialen aurka protestatzeko burrunbada

ANDER MONEDERO | BERGARA

Irailaren 26ko greba asanbladan sortutako B26 (Beti 26) taldeak arlo sozialean gobernu ezberdinak egiten ari diren murrizketen aurka protesta egin zuen egubakoitz arratsaldean.

Zarata handia egin eta entzunik izateko, B26 mugimenduko kideek txiribituak, klaxonak, zintzarriak eta zarata egiteko balio zuen edozer gauza erabili zuten. Protesta egin zutenek bankuei emandako laguntzak kritikatu zituzten, baita osasun, gizarte eta kultura arloetan egindako murrizketak ere. B26 mugimendukoek San Martin plazan hasi

zuten protesta eta, Bergarako erdialdeko kaleetan barrena ibili ostean, Herriko plazan bukatu zuten.

Burrunbadaren ostean, hurrengo hilabeteko 26. egunerako protestaldia prestatzeko asanblada egin zuten.

**Azaroaren 26an ere kalera**

Egubakoitzeko asanbladan, azaroaren 26an egingo duten protesta erabaki zuten: emakumeen kontrako erasoen aurka irtengo dira kalera. B26 mugimendua ekimen anitza eta irekia da, eta parte hartu nahi duten norbanako eta kolektiboei irekita dago.



Beti 26 mugimendukoak, Bergarako kaleetan egindako protestan. | JA

## Odol-emaile gazteen premia nabarmendu zuten atzo Elgetan egindako ekitaldian

Gipuzkoako odol-emaileen bazkarian 135 lagun elkartu ziren, eta 100 saritik gora banatu zituzten

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetan elkartu ziren atzo, domeka, Debagoiena eta Debarrenako odol-emaileak. Urteroko ekitaldia egin zuten, eta bertan hainbat sari banatu zituzten. Odol-emaileek musu-truk egiten dituzten donazioak eskertu nahi izaten ditu horrela Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak, eta bide batez gizarte osoari helarazi odola ematea premiazkoa dela.

**Erraza eta beharrezkoa**

Ehun saritik gora banatu zituzten Espaloia kafe antzokian bazkal aurretik egindako ekitaldian. Odola ematea erraza, azkarra eta beharrezkoa dela azpimarratu zuten Gipuzkoako odol-emaileen elkartetik. Odol-emaile gazteen premia ere azpimarratu zuten: "Bakoitzak gazte bat erakartzen badu odola ematera asko irabaziko dugu", adierazi zuten.



Atzo, Elgetan, Odol-emaile Handiaren saria jaso zuen lagun taldea. | JOSETXO ARANTZABAL

**MANU SARASUA**  
ELGETA



"Ahal izan dudan guztietan eman dut odola, eta pena handia dut ezingo dudalako jarraitu; 70 urte bete ditut. Zorionez, Elgetan jende gaztea badabil".

**JOSE MARI BALANZATEGI**  
OÑATI



"77 aldiz eman dut odola, eta lagatzen didaten arte jarraitzeko asmoa dut. Gazteak animatu behar ditugu; ez da lan handia, eta ondo pasatzen da".

**MARIA ANTONIA UGARTE**  
BERGARA



"63 donazio egin ditut, eta oso pozik nago gaur Elgetan. Odola ematea oso garrantzitsua da. Behar handia dago, eta gazte guztiak animatzen ditut".

**JESUS MARI JAUREGI**  
ANTZUOLA



"101 bider eman dut odola. Premia handia dago, eta nire pena da ezingo dudala jarraitu. Azkena izango zela esan zidaten azkeneko aldian".

**MIREN ZUBILLAGA**  
ANTZUOLA



"Odola ematea erraza da, eta ez da ezer kostatzen. Gazteak animatu behar ditugu. Antzuolan etortzen da jende gaztea, baina kostata".

Amaia Etxabe eta Garazi Barberan | Gazte Zukgua

## "Iraultza norbanakoan hasten da baina taldeak indartu egiten gaitu"

Zukgua antolakundearen prozesu eraikitzailea 2013ko martxora arte egongo da martxan

M.A. / Z.V.D.M. | ARRASATE

Gazte Zukgua gazte antolakundearen sortzen ari dira Euskal Herri mailan eta 2013ko martxora bitartean iraungo du prozesu eraikitzaileak. Amaia Etxabe eta Garazi Barberan arrasatearrek ere horretan dihardute.

**Zukgua izenak norbanakoaren eta taldearen beharra islatzen du, ezta?**

Zuk-gu izen joko horrekin, norbanakotik kolektibora pasatuko garela adierazi nahi izan da. Azken finean, iraultza norbanakoan hasten da, baina taldeak indartu egiten gaitu.

**Eta nola hasi zen Gazte Zukgua sortzeko ideia?**

Gazteok problematika propio bat bizi dugula agerikoa da. Egun dugun krisi testuinguruan sektore kaltetuenetariko bat gara, gainera. Euskal Herrian beste arazo bat ere badaukagu, nazio nortasuna zapaldua dagoela. Horiei taldean erantzun diezaie-kegula pentsatzen dugu eta horregatik abiarazi dugu prozesua.

**Udan egindako hausnarketa baten ondorioa izan da, ezta?**

Hala da, bai. Harreman dinamiketan dauka oinarria sortu berri den prozesuak. Argi ikusi dugu herrian gazteok antolatzeke beharra daukagula eta horregatik jarri da martxan Gazte Zukgua. Euskal Herrian gazte estrategia eraberritu bat abian jarriko duen gazte antolakunde independentista eta sozialista bat abian jar- tzea da helburu nagusia.



Amaia Etxabe eta Garazi Barberan, Goienan. | UBANE MADERA

**Eta zein da lan prozesua?**

Euskal Herri mailako prozesu eraikitzaile honen bidez gazte estrategia birdefinituko dugu. Izaera herritarra izango du, ahalik eta herriko gazte gehienek parte hartu dezatela da helburua. Asanblada bidezkoa izango da parte hartzea eta modu horretan landuko ditugu prozesu eraikitzaile honetako oinarriko hiru edukia: gaur eguneko egoeraren azterketa, ziklo politikoaren irakurketa eta gazte estrategia.

Hiru horiek jorratzeko bidea eztabaida fase ezberdinetan lantzea izango da. Lehenengo, eztabaida-asanblada bat egingo litzateke, ondoren ekarpenak egiteko beste bat eta azkenik txostenak bozkatzeko asanblada.

**Orain arteko bileretan nolako kez- kak azaleratu dira?**

Egun bizi garen sistemak dakartzan kontsumo moduak eta gazteoi ekartzen dizkigun ondorioak lantzen ibili gara. Zenbait kezka

sortu dira, tartean, sistema kapitalistarekiko, kontsumoarekiko eta globalizazioarekiko kezka. Lehenengo blokean horren gainean ari gara lanean, alternatibak planteatzen.

**Aintzat hartzen al du jendarteak gazteak nola sentitzen zireten?**

Jendartean geroz eta barnertuago dago sistema kapitalista eta patriarkala suntsitzeko beharra dagoela eta uste dugu guztiok eman beharko dugula urratsak hau iraultzeko. Guzti hori ikusita, alternatiba propioak eraikitzen joan behar gara eta hori da gure xedea.

**Nola ikusten duzue zuek euskal gazteria?**

Oro har, Euskal Herriko egoera aldatzeko lanean jardun du beti gazteriak. Egia da momentu zailak bizi izan dituela, baina egun ilusioz eta gogotsu gaude, eta hori islatzen da herriz herri martxan ipini den ekimen honetan.

**Debagoiengan Bergara eta Arrasate egin dira aurreko bilerak.**

Esan behar da eskualdean egin diren aurkezpen guztietan gazte dezente agertu direla, eta denetan lanerako ilusioa eta grina ikusi dela. Debagoiengan lau herritan dago martxan Zukguaren prozesu eraikitzailea, Aretxabaleta, Oñati, Bergara eta Arrasaten. Orain hasi gara eta martxora bitartean jarraituko dugu asanbladen dinamikekin.

Zukgua ekimena Euskal Herriko udalerrri guztietara zabaltzea izango litzateke asmo nagusia, eta poliki bagoaz lortzen.

## Udazken-neguko aterpetxerako boluntarioak behar dituzte

Z.V.D.M. | ARRASATE

Asteon irekiko ditu atea neguko aterpetxeak Arrasaten. Azken urteetako toki berean dago kokatuta, Zalduspen, ospitale inguruan. Negua luzea izaten dela eta, bost hilabete inguruz egongo da irekita eta zerbitzu ezberdinak emango dizkiete bertaratzen direnei: lo egiteko tokia, komuna, gosaria...

Aurten gainera, zerbitzu berri bat ipini gura izan du martxan Caritasek. Jaki beroa prestatzea izango dute helburu eta xedea betetzeko, gizon-emakumeen bila dabilta, hau da, astean behin bazkaria taldean prestatuko luketen boluntarioak behar dituzte. Horacio Argarate Arrasateko parrokoak orain arte ogitar-teko bat ematen zitzaiela adierazi du. "Plater batetan zerbait beroa jateko aukera ematearekin urrats bat hara-tago goaz". Urribarriko elkar-te bat prest agertu da sukaldea erabili dezaten.

Boluntario moduan aritzeko edo informazio gehiagorako, 638 524 710 telefonora zenbakira deitu.

## Ohitura osasuntsuak sustatzeko, Diet on Health

MU eta Fagorren arteko proiektuak osasuna kudeatzeko aukera pertsonalizatua eskaintzen du

Z.V.D.M. | DEBAGOIENA

Duela zenbait urtetatik Mondragon Unibertsitateak eta Fagor Etxetresnak elkarlanean dihardute negozio berriak sortzeko asmoz. Osasuna, energiaren kudeaketa, ongizatea edota segurtasuna moduko arloek merkatuan dituzten hutsuneak aztertu eta horiek lantzen dituzte negozio bide berriak sortzeko asmoz.

Horiatariko bat da Diet on Health. Osasun arloari lotuta dago eta MUK Fagorreko infor-

matika sailarekin daukan urte askotako harremana aprobetxatu dute beste behin ere egitasmo berritzaile bat martxan ipintzeko. Fagorreko Juan Ramon Inurriak hala adierazi du: "Plataformak dira oinarri, eta pertsonak dira hauen gunea, eta Fagor, integratzaile moduan agertzen da".

MUKo Urtzi Markiegi gaineratu duenez, osasun arazoak dituztenei edota zaindu gura dutenei eskura jartzen dizkiete beharrezko tresnak eta informa-

zioa, "eta hori aurrerapen handia da". Osasuna kudeatzeko aukera pertsonalizatua eskaintzen du, eta erabiltzaileek informazioaren jarraipena egin dezakete, dela smartphone edota tabletan bidez. Ohitura osasuntsuak sustatzea bilatzen du, azken finean egitasmoak eta erraztasunak ematen dizkie bere erabiltzaileei.

**Ikasitakoak ikasgeletara**

Markiegi gaineratu du, epe motzera proiektu horretan ikasitakoak ikasgeletara eraman gura dituztela ikasleekin partekatzeke.

"Datorren urtean biomedikuntza ingeniari gradu berri bat ipiniko da martxan eta bertan hainbat ikasgaitan aplikatu genezake Diet on Health proiektuan ikasitakoak".

## Lehen sorospen ikastaroa eta Dentibus Debagoiengan

Z.V.D.M. | DEBAGOIENA

Debagoieneko herritarrentzako lehen sorospen ikastaroa antolatuko du Gurutze Gorriak. San Prudentzian duen egoitzan emango dute ikastaroa azaroaren 7tik 26ra bitartean; 40 ordu iraupena edukiko du, eta 18:00etatik 21:00etara elkartuko dira.

Interesatuak baldintza bakarra bete beharko dute ikastaroan parte hartzeko, hain zuzen, kurtsoa amaitzerakoan 16 urte edukitzea. Lehen sorospen ikastaroan izena ematen dutenek 125 euroko ordaindu beharko dituzte, eta 619 00 35 00 zenba-

kira deituta edota altodeba@cruzroja.es helbidera idatzi beharko dute izenemateko.

**Ahoaren osasuna**

Bestalde, Gipuzkoako haginlarien elkargoak Dentibus Programan hartuko du parte aurten ere, eta 2012ko edizioa haurren haginak zaintzea izango du helburu.

Debagoieneko hitzordua Arrasaten izango da, azaroaren 5ean, ospitale aurrean. Urtean behin prebentzio azterketaren garrantziaz informatzeaz gainera, eta ahoa era egokian nola garbitu azalduko dute.

**LENIZ**  
ESKORIATZA

**SUZUKI**

**Konponketak:** Txapa, Margoa, Mekanika  
Bigarren eskuko autoen salerosketa,  
inyektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa



# Jatetxe Gida



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA  
Tel.: 943 25 06 77

### Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
943 53 32 72  
[www.errekajatetxea.eu](http://www.errekajatetxea.eu)

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE  
943 79 22 15  
[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55 / [www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)

### Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria  
Mas Gastronomía 2009.



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE  
943 79 49 39  
[www.santaanamondragon.com](http://www.santaanamondragon.com)

### Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE  
943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

**Izaskun Andonegi** | Bidegin elkarteko fundatzailea

# "Dolua ez da gaixotasuna, baina bada posible gaixotzea doluari kasurik egin ezean"

- ▶ Dolua eta gaixotasun larri aurreratuak pairatzen dituztenendako zerbitzua da Bidegin
- ▶ Gipuzkoa osorako zerbitzua da, eta urrian Arantzazun jardun dute lanean

UBANE MADERA | ARRASATE

Izaskun Andonegi da Bidegin elkarteko fundatzailea. Dolurako eta gaixotasun larri aurreratuak dituztenendako laguntza zerbitzua da. Urte eta erdi daramate herritarrei zerbitzua ematen, eta egoitza Donostian duen arren, Gipuzkoa osoan egiten dute lan. Aurreko asteburuan Arantzazun izan ziren. Arrasate Irratian kontaktu du guztia elkarteko fundatzaileak.

**Hurrengo hitzordua laster da...**

Bai, azaroaren leian Donostian emango ditugu hitzaldi batzuk, doan. Interesa dutenak ongietorriak izango dira, eta bestela, informazioa gure webgunean zintzilikatuko dugu ([www.bideginduelo.org](http://www.bideginduelo.org)).

**Zer eskaintzen du Bidegin elkarteak, eta zeini?**

Jendea etortzen da maitatu izan duen pertsona galdu duenean, bakarka, familiara edo bikoteka; azken horiek, bereziki, semea edo alaba galdu dutenean. Bizitza-kalitatea hobetzea da gure helburua, dolu osasuntsua bideratzen. Zenbait kasutan posible da dolua kroniko egin edo konplikatzea. Askotan botikekin estaltzen dugu, lan handia eginez, edo beste estrategiaren bat bilatzen dugu saminari aurre egiteko. Baina egiten duguna da samina estali. Eta guk nahi duguna da jendeak barruan duena ateratzea. Dolu taldea dago horretarako. Galeraren bizipena egoera berean dauden pertsonen konpartitzean, samina arindu egiten da.

**Zelakoa izan behar du dolu osasuntsuak?**

*Dolua* berba latinetik dator: *dolus*, *mina* da esanahia. Maila pertsonal eta klinikoan doluaren samina bizi egin behar dela. Ez dut esan nahi horretan murgildu egin behar dugunik, baina bai samin hori bizi egin behar dugula. Modu bakar horretan da posible bizitza osasuntsuagoa eramatea. Osasunez bizi izatea da emozioei kasu egitea, espresatzea, elkarbanatzea... laguntasuna izateko. Doluan kontzientzia eta presentzia jarrita, konturatzen gara sufrimendua ez dela betiko, eta, doluaren prozesuan samina arintzen doan neurrian, osasuntsuago biziko gara. Dolua ez da gaixotasuna, baina bada gaixotzera eramanean zaitzakeen prozesua. Askotan, gizartean negarra erakutsi digute pribatuan egiten. Ikusten da dolu prozesuetan askotan jendeak ez duela negarrik egiten, ezkutuan egiten duela. Sozialki beste emozio batzuk, adibidez, amorrua edo poza onartuta ditugu, baina beste batzuk



Izaskun Andonegi, Bidegin elkarteko fundatzailea. | BIDEGIN

ez; horiek estaltzen joaten gara, eta zenbait sintoma fisiko azaltzen dira: takikardiak, ikarak, larritasuna, depresioa... mezua da dolua ez dela gaixotasuna, baina posible dela gaixotzea kasurik egin ezean. Helburua da dolua arintzea eta maitatu izan dudana pertsona, galdu dudana pertsona horrek emandakoa gogora ekarri, eta horrekin berriro ere bizitza berreraikitzea.

**Galdu dugun pertsona hori barik bizi izaten ikasi behar dugu?**

Ikastea balitz, galdera da non dauden irakasleak, ezta? Saminean murgilduta gaudenean, urratuta gaude, eta askotan ezin dugu haratago ikusi. Baina sentitzen den sufrimendua ez da betiko. Arintzen doa, denborak bere lana egiten du. Baina askoz inportanteagoa da zer egiten duen norberak denbora horretan, lan pertsonalean: gustatzen zaigu galdu dugun pertsonari buruz berba egitea edo entzutea ze garrantzitsua izan den... azken batean, bizirik egongo balira bezala sentitzen hasten gara, baina beste dimentsio batean. Lehenengo pasatzen dugu abinentzia-sindrome antzeko bat, muga fisiko bat pasa arte, ze oso fisikoak baikara: elkar ukitzen dugu, aho-tsa... hori guztia faltan igartzen dugu, eta hori gainditzeak den-

bora behar du. Baina behin hori eginda, ikasten dugu gabeziarekin bizi izaten. Izan ere, dolua ez da bakarrik galera fisikoa, baizik eta baita harremanekin lotutakoa ere. Nik galtzen dudana da harremana, eta mintzen gaitu maitatu izan dugulako, eta hori denborarekin, ikasten baino gehiago, deskubritzen joaten gara transformazio prozesu batean. Hori da dolu bidea.

**Zelako terapia egiten duzue?**

Oinarrituta dago psikoterapia integratzailean; hau da, atentzio handia jartzen da erlazio terapeutikoan, eta beti pertsonengan. Bestela esanda, datorren pertsona behar emozional batzuekin dator. Batzuetan behar hori

da entzuna izatea, ze askotan ez baitute kontaktu bizi izan dutena; edo balioa galdu duen dolua delako, ezkutukoa. Adibidez, suizidio kasuetan, edo autoa gidatzen izandako istripuan ondokoa hil denean... Praktikan, egiten dugun lehenengo pausoa da doluan dagoen pertsonari deitu. Ze askotan deiak jasotzen baititugu esanez, adibidez: "Nire bikotekideari oso ondo etorriko litzaioke". Baina berak deitzen ez badu, ez du konpromisorik hartzen prozesuan, eta dolu bidea edo prozesu hau norberak egin behar du, ezin dizu inork egin. Hortaz, lehenengo deitu egin behar dute, gero egiten dugu elkarrizketa edo balorazio moduko bat terapeuta batekin, eta gero, tal-

dera pasa aurretik bakarkako saioak egiten ditugu ikusteko zer momentutan dagoen dolua jasaten dabilen pertsona hori, zerk laguntzen dion eta zerk ez... erlazio terapeutikoari segurantzazko espazioa eta denbora emateko da hori guztia.

**Dolua zenbatekoa izan daiteke; edo pertsonaren arabera da?**

Ez dago formularik. Dolua prozesu bakarra da. Ze gainera nahiz eta bizitzan bi galera edo hiru izan, modu desberdinean biziko dituzu guztiak, ze bakoitzarekin izan duzun erlazioatzeko modua desberdina izan da. Hortaz, ez dago araurik. Badaude tendentzia eta fase batzuk, eta horietatik guztiok pasatzen gara: hasieran inpaktu edo shock momentua izaten da, harridurako momentu oso traumatikoak izaten da, eta anestesiatuta moduan egoten da. Desberdintasuna da batzuetako orduetako inpaktua izan daitekeela, eta beste batzuetako izan daitekeela hilabete osokoa. Norberak aurrera egiteko dituen tresna eta babesen arabera da hori. Norberak jartzen ditu adaptatzeko mekanismoak. Batzuek samin horretatik alde egiteko estrategiak bilatzen dituzte, lan handia egiten, edo gehiago sozializatzen, kalera irteten... Edo galdu izan dugun pertsonarekin konektatzeko estrategiak hartzen ditugu: joaten gara gertaera gertatu zen tokira, edo jartzen ditugu bere etxeko zapatilak, edo bere argazki bat hartzen dugu... Honek ere bere momentua dauka, hasierako inpaktua pasa ondoren. Eta dolua jasaten duen pertsonak guzti honetan kontzientzia jartzen duenean eta ulertzen duenean zergatik eta zertarako egiten dituen halakoak, murgiltzen da konexio fase batean. Hor erlazioez berba egiten sartzen gara. Ez da horren inportantea heriotza zela gertatu zen, baizik eta kide bat faltan igartzen dudala, eta atentzioa jartzen dugu galdu dugun pertsona horretan. Hortik aurrera hasten gara transformazio prozesuan, batzuek *azetazioa* deitzen diote. Niri ez zait gustatzen hitza, ezin dugulako onartu gertatu dena: nola onartuko dugu nire semea hil dela edo bikotekidea etxetik atera eta ez dela berriro etxean sartu? Ez da galera onartzea, gertaera onartzea, baizik eta onartzea ni nola nagoen eta zer egin nahi dudana hemendik aurrera nire bizitzarekin. Prozesu horretatik bai pasatzen gara, baina bakoitzak bere erritmoan eta modu bakarrean.

**"Samina arindu egiten da egoera berean daudenekin konpartitzean"**

**"Askotan, gizartean erakutsi digute negarra pribatuan egiten"**

**"Maila pertsonal edo klinikoan doluaren samina bizi egin behar da"**

**"Kalitate-prezioa konparatuz gero, lehiakideen aurretik gaude"**



# HERRIAK

## Indarkeria matxista gaitzesten duen Puntu Lila banatuko du Udalak

- ▶ Hilaren 25erako –emakumeen aurkako indarkeria salatzeke eguna– pegatinak atera dituzte
- ▶ Eraikin publikoetan jartzeaz gain, elkarte, taberna eta dendetan jartzeke ere eskatuko dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak onartutako Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunaren I. Planaren helburuetako bat hau da: emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizazioa sustatzea. Hala, azaroaren 25a Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna denez, testuinguru hori aprobetxatuz, egun horretarako egoki ikusi dute Eudelek abiarazitako Puntu Lilaren kanpainarekin bat egitea.

Puntu Lila emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko ikurra da, eta, kanpaina horren barruan, Udalak ikur hori darmaten pegatinak ateratzea erabaki du. Pegatinok, Puntu Lila-rekin batera, honako testua ere eroango dute: *Emakumeenganako indarkeriarik ez. No a la violencia contra las mujeres.* Pegatina horiek eraikin publiko guztietan modu iraunkorrean ezarriko dituzte; besteak beste, udaletxearen sarrerako atean, igerilekuan, kiroldegian, pilotalekuan eta kultura etxean. Baina, era berean, herritarren inplikazio eta parte-hartzea ere lortu nahi dute kanpaina horren barruan.

### Eskutitza herritarrei

Udalak, besteak beste, gutun bidez gonbidatu eta animatuko ditu herritarrak parte hartzera. Hain justu ere, datozen egunotan bidaliko dituzte eskutitzok herritarrek Puntu Lilaren kanpainarekin bat egitera animatuz. Kanpainaren gaineko azalpenekin batera, pegatina ere bidaliko dute. Edozein kasutan, informazio edo argibide gehiago nahi izanez gero, 943 77 91 26 zenbakira dei daiteke.


Herriko elkarte, erakunde, denda, tabernetara-eta bidaliko dituzte gutunok, eta euren lokaletan ipintzera animatu nahi dituzte Udaletik. Halaxe esan du Jabi Bengoak, Ongizate Saileko zinegotziak: "Kontzientzia hartu behar dugu. Ardura guztiona da, eta, horregatik, herritarrak animatu nahi ditugu kanpainarekin bat egitera. Azken batean, herri hobe egiteko guztiok dugu-eta zer eskaini".



Puntu morea modu iraunkorrean jarriko dute udaletxea bezalako eraikin publikoetan. Irudian, Maren Belastegi zinegotzia pegatinarekin | MONIKA BELASTEGI



Puntu morea. | GOIENA



### Berdintasun Plana oinarrian

Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuen Departamentuak 2011. urteko jarduna laburtzen duen txostena kaleratu berri du. Bertan, besteak beste, departamentu horrek iaz eskaintako laguntza eta zerbitzuen berri ematen du; baita Udalak onartutako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren I. Planaren baitan egindakoen berri ere.

Bada, plana garatzeko zenbait ekintza egin zituzten iaz; batzuk, Udal barrura begira, eta beste batzuk herritarrei begira. Barrurako artean, besteak beste, teknikarien prestakuntza zehatza antolatu zuten, genero ikuspegia txertatu ahal izateko euren jardunean; eta batzorde teknikoak ere osatu zuten, Berdintasun Planaren garapen koordinatua bermatzeko.

Herri mailan, berriz, beste hainbat ekintza garatu zituzten iaz, hala nola plana ezagutarazteko arloko egindako liburuxkak banatu zituzten, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Tokiko Protokoloa landu

zuten eta ikastetxeetan ikasleei ematen zaien sexu-heziketan, tratu onen gaia txertatu dute.

2009an abiarazi zuen Berdintasun Plana Udalak. Elhuyar elkartearen laguntzarekin, herriaren azterketa egin zuten orduan,

bi helbururekin: batetik, herriaren errealitatea ezagutu nahi zuten genero ikuspegitik, eta diagnostikoa egin; eta bestetik, hurrengo lau urteetarako Berdintasun Plana diseinatu nahi zuten.

### Iaz 43 espediente tramitatu zituzten

Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuen Departamentuak egin duen 2011. urteko memoriaren arabera, berdintasun arloan 43 espediente tramitatu zituzten iaz; %72 emakumezkoenak eta %28 gizonezkoenak.

Genero indarkeriari dagokionez, 18 kasu jaso zuten laguntza psikologikoa, genero indarkeriaren ondorioz: 16 emakumek eta bi gizonek. Bestalde, indarkeria horren ondorioz urgentziaz etxetik irteten behar izan duen kasu bat bera ere ez zuten artatu. Autolaguntza taldeak ere kudeatzen dituzte Gizarte Zerbitzuetatik, eta iaz 38 emakumek hartu zuten parte.

Horrekin guztiarekin batera, genero indarkeria kasuetarako dirulaguntzak ere kudeatzen dituzte Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuen Departamentutik. Iaz halako zazpi eskari jaso zituzten. Gizarte laguntza horien helburua da biktimen eskura bizirik irauteko gutxieneko baliabide batzuk jartzea enplegu bat lortu arte, euren erasotzaileengandik banatzeko aukera izan dezaten. Indarkeria kasuetarako dirulaguntza horiek Eusko Jaurlaritzak ematen ditu.

## ARAMAIO

# Ganadu eta artisau feria, dantzak eta jai giroa erretiratuaren egunean

- ▶ Eguraldiak lagundu ez arren, Aramaioko jubilatuek kalean ospatu zuten euren eguna
- ▶ Bazkarian, Maria Angeles Beitia eta Balentin Ibabe omendu zituzten

ANDER MONEDERO | ARAMAIO

Zapatu goizean egindako euria ez zen aitzakia izan Aramaioko jubilatuek euren eguna gogoz ospatzeko. Jaia 10:30ean hasi zen, herriko trikitilari eta txistularien kalejirarekin. Ostean, jendea gutxinaka ganadu eta artisau azokara hurbiltzen hasi zen. Eguraldiak lagundu ez zenez, aurreikusitakoa baino saltzaile gutxiago gerturatu ziren Aramaioko Nardeaga kalean jarritako azokara.

Kanpoko saltzaile askok kale egin zuten, baina ez aramaioarrek; izan ere, aurreikusitako 44 ekoizleen artetik bakarra falta izan zen.

Ganadu ferian, euskal behorrak, ardi latxak eta astoak izan ziren. Nahiz eta euriarengatik kanpoko abeltzainak ez etorri, Aramaioko ganaduak ikusmina sortu zuen, batez ere, ume eta adinekoetan. Ortuko produktu eta artisau azokan, berriz, eztiak eta perretxikoek eman zuten zer esan handiena. Perretxiko garaia da eta aurten berandu hasi direnez irteten, batek baino gehiagok denboraldian ikusitako lehenengo perretxikoak izan ziren zapatukoak.

Eguerdian, Aramaioko erretiratuek lehenengo hitzordua izan zuten: urtean zehar hildakoen

aldeko meza. Elizkizunaren ostean, herriko dantzari gazteenek dantzaldia eskaini zieten. Eguraldiarengatik San Martin parrokiaren aurrean, udaletxeko arkupean egin zuten euskal dantzen erakustaldia.

Eguna borobiltzeko, erretiratuek bazkaria egin zuten kiroldegian. Bertan, herriko zaharrei omenaldia egiten zitzaie, baina bazkariara joan ez zirenez, Udal ordezkariak omenduen etxera joan ziren.

Atzo, berriz, artzai txakur txapelketa berezia egin zuten, izan ere, txanda eta txanda artean, bertsolariek ikusitakoari kanta zioten.



Erretiratu talde bat mezetatik irteten. | ANDER MONEDERO



Ume eta gazteak dantza erakustaldia egiten. | ANDER MONEDERO



Maria Luisa Gonzalez de Audikana oletarra Atxeta gazta saltzen. | A.M.

## OÑATI

## Miren Elgarresta: "Arantzazuko Parketxera inguratzen direnak harritu egiten dira"

MAIDER ARREGI | OÑATI

Datorren otsailean bi urte beteko ditu Arantzazuko Interpretazio Zentroak. Atzo, aldiz, lehen urteurrena ospatu zuten.

Publiko orrendako ekintza anitz antolatuta zituzten. "Goizean elurra ari zuen eta bederatzi lagun animatu dira Arantzazuko arroia-

tik Arrikrutzeraino ibilbidea egitera", azaldu zigun Miren Elgarresta teknikariak. Familia osoarendako eskulanez eta arkeologiarekin lotutako tailerraz gozatzeko aukera izan zuten. Eta bukatzeko, turismo bulegoaren eskutik, Arantzazuko historia bizitzeko aprobetxatu zuten.

## 4.000 bisita urtebetean

"Lehen urtean ia 4.000 pertsona etorri ziren parketxera", dio. Etxetik oso gertu, babestutako eremua dugu eta askotan ahaztu egiten zaigu. "Gure hausnarketa da oso urbanizatuta gaudela. Jende askori, oraindik, kosta egiten zaio daukagun aberastuna ezagutzera gerturatzea eta paisaiatzeko eta artzaintzaz gozatzeko. Inguratzen direnak harritu egiten dira".



Gaztetxoek sua nola egiten den ikasteko aukera izan zuten. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREN ELGARRESTA  
TEKNIKARIA

"Ilusio handiarekin gaude lan honetan. Debagoieneko eta Gipuzkoako jende asko gerturatu da. Konturatu gara kalean egoteko eta ezagutzera emateko ekimenak egin behar ditugula. Aparkalekutik gora gaude; jendeak ez du jakiten horrelako zentroa dagoela".

ESTEBAN ETA LEIRE  
ARETXABALETA

"Arantzazura askotan etorri gara, baina, parketxeko museo hau bisitatzera lehen aldiz etorri gara gaurkoan. Gertuko gauzak askotan ez ditugu ezagutzen eta interpretazio zentroak aukera polita ematen du horretarako. Asko gustatu zaigu".

JON, UGAITZ, IORITZ ETA ANE  
OÑATI

"Animalien maskarak egiten ibili gara goizean tailerrean. Txoriarenak margotu eta egin ditugu. Ez da hona etortzen garen lehen aldiz. Oso polita da. Aitzina sua nola egiten zuten ikustera joango gara orain. Dibertigarria izango da".

ESTEBAN ARRIARAN  
OÑATI

"Inguruan dugun historiako aztarnak azaltzea oso aberasgarria izan da; batez ere, umeendako egin den tailerraren bitartez. Egia da askotan kobazulo batetik pasatzen garela eta ez dakigula zer dagoen. Interpretazio zentroa asko gustatu zaigu, oso bisuala da".

## ARETXABALETA

# Gastronomia eta folklorea aterpean babestu behar izan ziren

Jaiaren XVI. edizioak ezin izan zuten beste batzuetan adina distira egin

GOIATZ ARANA | ARETXABALETA

Euriak ez zuten barkatu. Galiziako eta Gaztela-Leongo musikariek kalejira egin ohi dute herriko kaleetan zehar, baina atzo ez zen posible izan; arkupetan apur bat jo eta justu-justuan plazan dantza eginda konformatu behar izan zuten. Eta aterpean egin zuten saioa Kalagorriko Voces Riberas taldekoek ere; Aretxabaletako jaira lehen aldiz etorrita, gogotsu jardun zuten, "arima, bihotza eta bizitza alaitzeko" jotekin.

Bien bitartean, Galiziako olagarroa eta lakoia, eta albariñoa eta ribeiroa dastatu ahal izan zituzten Herriko plazan batutakoek, baita Arrasateko Corazon de Encina elkarteok prestatutako txitxi-burruntziak ere. Eta horiekin batera, beste hainbat jan-edan dastatu eta erosi ahal izan zituzten: Arabako trufak; Palentziako ezti; Leongo txorizoa eta urdaiazpikoa; euskal pastela; Errioxako ardoa, gozoak eta hestebeteak; edota Iparaldeko ahate-gibela berregina.

XVIII. Etxeko Patxaran Lehiaketako lehen saria Eibarrera joan zen; Aretxabaletako Mila Sanvicente eta Gurutze Gomezek bigarren eta hirugarren egin zuten.



Olagarroak arrakasta izan zuten. | JOSETXO ARANTZABAL



Voces Riberas taldekoak gogotik ahalegindu ziren jendea animatzen. | J.A.



Gaztetxeko publikoak bat egin zuten Garraxi taldearekin. | JOSETXO ARANTZABAL

## ARRASATE

## Bi urte barru edo agian urtebetera Arrasaten egingo dute berriz

200 lagun batu ziren zapatuan gaztetxean RIPEko kideei eskainitako kontzertu-omenaldian

G.A. | ARRASATE

Oso ondo joan zen zapatu gaua Arrasateko Gaztetxean; 200 lagun inguru batu ziren azkenerako.

Arrasate bertako Garraxi taldea izan zen agertokira igotzen lehena eta ordubeteko saioa egin zuten, erabat entregatutako entzuleekin bat eginda; Kataluniako Inershowren txanda izan zen gero eta, ikusleek aukera

tutako kantuekin, ia bi orduz jo zuten; eta jendearen gogoa guztiz asetzeko, Piztu Punk! igo zen azkenik eszenatokira.

RIPen *Condenado*, *Enamorado de la muerte* edota *Revolucion* kantu ezagunak jo zituzten, eta horiekin taldeko *Portu* eta Karlos ez ezik, Mariano Puñetazo ere omendu zuten. 2014an, edo agian lehenago, berriz.

Promociones  
**Erregetxo Plaza**  
Bergara



**Bergarako hirigune historikoan**  
63 etxebizitza, libre, tasatu,  
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18



LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

- ✓ KOKAPEN EZINHOBEA
- ✓ 1,2,3,4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
- ✓ LEHENENGO MAILAKO MATERIALAK
- ✓ SUKALDE EKIPATUAK, ARMAIRUAK

Dagoeneko zintzilikatu dugu informazio guztia gure web gunean

Sartu eta ikusi

[www.promocioneserregetxoplaza.com](http://www.promocioneserregetxoplaza.com)





Arrasateko hiribildua bertatik bertara eta aditu baten bidez ezagutzeko bigarren bisita gidatuan talde polita elkartu zen. | JOSETXO ARANTZABAL

## Bisita gidatuak, XVI. mendean nola bizi ginen irudikatzeko

Arrasateko hiribilduaren hainbat bitxikeria eta datu interesgarri ezagutzeko ditu bisitariak, ordu eta erdian

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Euskal Herriko historia orokorra ezagutzeko "oso leku aproposa" da, Arantza Otadui Arrasate Zientzia elkartearen arabera: "Gure herriko alde zaharra museo ireki bat da". Ibai-Arterekin elkarlanean egiten dabilzan bisita gidatueta hiribilduaren ezaugarriak ezagutzen dabilza herritarrek, XVI. mendean nola bizi ginen irudikatzeko.

Zapatuan bigarren bisita gidatua egin zen, giro euritsuarekin. Horren jakitun ziren antolatzaileak bisitokin hasi aurretik eta horregatik azalpenak espazio itxietan egiten dira: "Leku itxietan egiten denez, azalpenak mugatuak izaten dira. Hori bai, leku batetik bestera goazenean eguraldiak laguntzen badu, beste datu batzuk ere ematen ditugu".

### Bisita guztiak ezberdinak

Ez dago bisita bat besteari berdina denik. Azalpen gehienak inprobisatuak dira, bisita ahalik eta dinamikoena izan dadin, eta hartzailearen galderei erabat zabalik dago Otadui. Ordu eta erdi inguru irauten du bisitak.

Historialariak jakinarazi duenez, Ibai-Arteren bidez sarituak izan ez direnek ere izango dute aukera bisita egiteko. Nola? Hiru bide daude: [arrasatezientziaelkarte@gmail.com](mailto:arrasatezientziaelkarte@gmail.com) helbidera idatzi, 629 580 381 telefonora deitu

(18:00-20:00) edo <http://arrasatezientziaelkarte.blogspot.com.es> blogean formularioa bete.

**Arrasate, altzairuaren herria**  
Orduko Arrasate ezin da altzairuak jokatu zuen papera barik ulertu. *Acero de Mondragon* marka ezaguna zen mundu osoan eta Milango altzairua zuen lehiakide nagusi. Hiribildua ezinbestekoa izan zen merkataritza sustatzeko: "Inguru itxi horretan garatzen da oraindik bizirik dirauen merkataritza. Egun, Ibai-Arte da horren erakusle", dio Otadui.

Bisitari gure herria hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du. Gordetzen diren bitxikeriak inork gutxi dakienak dira, baina ezin da dena kontatu. Dena jakin gura dituzula? Eman izena.

### ESANAK

**"Hiribilduan garatzen da bizirik dirauen merkataritza. Orain, Ibai Arte da horren erakusle"**

ARANTZA OTADUI | AZE-KO KIDEA

## Lau geldialdi nagusietako azalpenak



JOSETXO ARANTZABAL

### Harresi aretoan gosaldu,

Bisitariak, gosaltzen duen bitartean, harresiaren beharra zuela ikusiko du. Ezaugarri arkitektonikoak ere ezagutzeko ditu eta baita egun aztarnak non dauden ere. Sei metroko altuera zuen harresia eraikitzeko 100 urte baino gehiago behar izan ziren; XVI. mendean lurraren maila beherago zegoen.



JOKIN BEREZIARTUA

### parrokia barrutik ezagutu,

Parrokian orduko hiri antolamenduaren berri izango du bisitariak: hiru kale zituela, lau ate, karkabak... Era berean, 1448ko erreketaren ondoren parrokia berreraiki behar izan zuten, akats arkitektonikoekin. Gainera, barruan gordetzen diren hamaika bitxikeria kontatuko dira, erlijioak izan zuen garrantziaren seinale.



J.B.

### udaletxetik pasa eta...

Askok uste dute udaletxea eta parrokia lotzen dituen pasadizo ezkutu bat dagoela; bisitariak jakingo du egia den ala ez. Metro baino lehenagoko neurri sistemek sortu zituzten arazoak berri ere ematen da udaletxeko arkupeetan. Gainera, gure altzairuaren kalitateaz ere egiten da berba.



J.B.

### San Frantziskon amaitu

XVI. mendeko lan munduan emakumeak zein paper jokatzeko zuen kontatzen da bisitako azken geldialdian. Ibai-Artekoei esker mokadutxoak egiten duen bitartean, bisitaria konturatuko da, besteak beste, San Frantzisko eliza egun Euskal Herrian zutik mantentzen den komentu inperial bakarra dela.

## Kurtze txiki mendiaren balioa ezagutzera emateko aurkezpena egingo du Udalak gaur, Kulturaten (18:00)

J. B. | ARRASATE

Udalak hiru egitasmo eramango ditu aurrera Kurtzetxiki mendiaren balioa ezagutzera emateko. Mendia hurbildu gura diote herritarrei -aisialdia, ibilbidea, ondasun kulturala...-, basoa berreskuratzea gura dute -artadia- eta lehen sektorea -ganadua, zelaia...- bultzatu. Jendaurrean

aurkeztuko ditu egitasmo horiek gaur, hilak 29, 18:00etan, Kulturateko Loramendi gelan.

Aurkezpenean egongo dira Besaide elkartearen kideak, landa auzoetako alkateak eta baserritarrak, eta horiekin batera ahalik eta arrasatear gehien batu gura du Udalak. Hala, aurkezpena agertzeko deia egin dute.



Kurtze txikiko elurzuloetako bat. | UBANE MADERA

## Martinezek liburu berria aurkeztuko du bihar Kulturaten (19:00)

Dorleta Martinez medikuak liburu berria aurkeztuko du bihar Kulturaten, 19:00etan. *Fibromialgia y otras enfermedades ambientales. Alimentación y terapias naturales* du izenburu liburu berriak. Egi-leak adierazi duenez, asma da liburuaren salgai jartzea.

# Moskura eramango dute Miguel Altuna institutuan ikasi dutena

Hotzeko Estanpazioa graduondokoa bertatik bertara ezagutzera etorri dira; ikastera etorri dira euren ikasketok euren zentroan eskaintzeko

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Moskuko The Moscow State Technical Universityko (MAMI) zenbait irakasle eta zuzendari Miguel Altuna institutuan izan ziren aurreko astean. Hotzeko Estanpazioa graduondokoa gainera informazioa jasotzera etorri dira.

Miguel Altuna institutua da zentro bakarra European Hotzeko Estanpazioaren gainera formazioa eskaintzen duena eta horregatik etorri dira hona. Izan ere, euren unibertsitate teknikoan hiru urteko ingeniari itzala ikasketak egiten dituzten ikasleei eskaini nahi diete graduondoko hori, arlo horretan espezializatu daitezzen.

## Harremanetan jarraituko dute

The Moscow State Technical University-ko zenbait irakasle eta zuzendari izan ziren Miguel Altunan. Martitzenean izan ziren. Institutuko instalazioak ezagutzearaz gain, formazioa nola eskain-



Errusiako zentroko ordezkariak Miguel Altunakoekin. | MIGUEL ALTUNA

tzen den, zein material erabiltzen diren, formazio hori eskaintzeko inguruko enprekin zein harreman duten eta gai horren inguruan lantzen eta garatzen ari diren proiektuak ezagutzeko aukera ere izan zuten errusiarrek.

Martitzenean egin zuten bisitaren ostean, datozen aste eta hilabeteetan harremanetan jarraituko dute Bergarakoek Moskukoekin Miguel Altunan eskaintzen den Hotzeko Estanpazioaren graduondokoa irakasteko.

Hotzeko estanpazioak toki nabarmena du Debagoieneko enpresen artean, ekoizle ugari dagoelako. Dena den, formazioari dagokionez, hutsune handia zegoen. Hala, Miguel Altunak martxan jarritako formazio eskaintza aitzindari jo daiteke.

## Puntu eta gantxillo ikastaroa Jardunekin

M.B. | BERGARA

Jardun Euskara Elkarteak puntu eta gantxillo ikastaroa antolatu du 25 urtera arteko gazteendako.

Azaroaren 11n, 18an eta 25ean izango dira eskolak, 18:00etatik 19:00era, Zabalo-tegin.

Izenematea dohainekoa da eta horretarako azken eguna azaroaren 7a izango da, Jarduneko bulegoan (kultura etxea) edo 943 76 36 61 telefono zenbakira deituta.

## Aisialdi taldeak martxan

Gogoratu, bestalde, Jardunek abian duela asteburuko aisialdia, egoitza berrian, Zubietako eskolan hain justu ere. 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta dago eta era askotako jolas eta ekintzen bidez asteburu entretenigarria igarotzeko aukera izango dute.

Urteko kuota 37 euro da bazkideendako eta 42 euro bazkide ez direnendako. Izena emateko jo Jardunek kultura etxean duen bulegora edo deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

## Euskararen Eguna antolatzeko batzarra bihar Irizar jauregian

Irizar jauregiko azken solairuan dagoen aretoan egingo da batzarra, 18:30ean. Urtero, abenduaren 3an Euskararen Eguna dela eta ekitaldi ugari egiten dira Euskal Herri osoan barrena gure hizkuntza, euskara aldarrikatzeko.

Hori horrela, aurtengo Euskararen Egunean Bergaran egingo diren ekimenen antolaketa parte hartu nahi dutenei dei egiten diete bihar, martitzena, egingo den batzarraren parte hartzeko.

## Marrazketaren hastapenak Beart elkartearekin

Beart elkarteak marrazketaren hastapenen gainera tailerra antolatu du. 12 orduko izango da eta lau asteburuan barrena emango dute: azaroaren 10ean, 17an eta 24an eta abenduaren 1ean. Eskolak 16:00etatik 19:00etara izango dira, eta Luis Lascurainek emango ditu. Prezioari dagokionez, 50 euro dira bazkideendako eta 75 bazkide ez direnendako. Izena emateko deitu 635 71 32 69 zenbakira edo idatzi [beart.elkartea@gmail.com](mailto:beart.elkartea@gmail.com) helbidera azaroaren 4a aurretik.

## Udalak kendu egin ditu Fraiskozuri plazako lorategiak inguratzen zituzten hesiak

M.B. | BERGARA

Udalak kendu egin ditu Fraiskozuri plazan dauden lorategiak inguratzen zituzten hesiak.

Herritarrek egindako eskariari erantzunez kendu ditu hesiak. Hain justu ere, uztailaren 5ean umetxo bat Fraiskozur in jolasean ari zela, erori eta zauri larria egin zuen begi ondoan lorategia mugatzen duten burdinen kontra jota. Gertakari horren aurrean, umearen arduradu-

nak muga horiek kentzeko eskaria egin zuen Udalean, hainbat sinadurarekin batera, arriskutsuak direlako.

Udal ordezkariak eskaria aztertu ondoren eta Udaleko lorezainen iritzia entzun ostean, hesiak kentzea erabaki zuten, herritarren eta, batik batik, hain jolasean ibiltzen diren umetxoaren segurtasuna bermatzeko asmoz.

Asteon kendu dituzte udal brigadako langileek eta hesiak txatartegira eramane dituzte.



Eguazten goizean kendu zituzten hesiak. Irudian, pilatuta. | NEREA MENDIZABAL



Hilerria apainduta Domu Santu Egunean. | GOIENA

## Eguenean, Domu Santu eguna, 08:00etan irekiko dute hilerria

M.B. | BERGARA

Eguenean Domu Santu eguna da eta hilerria egun osoan egongo da zabalik. 08:00etatik 19:30era, hain justu ere. Aurreko egunean ere, eguaztenean, ordutegi bera izango du, hilobiak txukundu edo prestatzera joan nahi dutenek horretarako aukera izan dezaten.

Panteoi eta nitxoekin batera, errautsendako kolunbarioak ere badaude hilerrian duela bost urtetik hona. Hilerriko ardura-dunen esanetan, 60 kolunbario daude, eta horietatik 40 daude beteta.

Bestalde, otoitz egiteko kaperaxkia ere badago hilerrian. Zaharkitu samarra dago eta

konponketa sakon baten beharra dauka; dena den, oraingoz, ez dago aurreikusita halakorik egitea. Hala eta guztiz ere, ekainean teilatua konpondu zuen Udalak, itogin handiak zituelako.

## Angiozarren bisita gidatuak

Euskal hileta-errituen berri emango duten bisita gidatuak izango dira Angiozarren azaroaren 1ean eta 3an. Udalak Angiozarkoekin batera prestatutako ekimena da. *Herio Anderea*. Euskal hileta-errituen izeneko bisitak Elizamenditik abiatu eta San Migel elizan bukatuko dira.

Biak ala biak 11:00etan hasiko dira.



Egueneko ezohiko osoko bilkurako une bat. | LEIRE KORTABARRIA

# Udal tasa gehienek berdin jarraituko dute 2013an

## Salbuespenak onartu dira: besteak beste, kirol ikastaroen tasak eta etxebizitza hutsen kontribuzioa

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Udal tasa gehienak ez dira igoko 2013an: halaxe onartu zen egunean ezohiko osoko bilkuran. Bilduren aldeko botoarekin eta EAJren aurkako botoarekin onartu ziren 2013ko Zerga Ordenantzak. Salbuespen batzuk izango dira: kiroldegiko ikastaroak eta etxebizitza hutsen gaineko %100eko errekar-gua dira igoera nagusiak.

Bilduren esanetan, krisiaren erdian "egoera ahulenean" dauden kontuan hartuta egindako tasak dira. Aplikaturako igoeren gainean, hainbat arlotan BEZA asko igo izana dela-eta, tasak garestizera "behartuta" zeudela esan zuten.

EAJk, ordea, tasetan KPIa igotzea proposatu zuen. Ordenantzen hainbat atalekin ados zeuden arren, osotasunari eman behar zitzaion botoa, eta aurka bozkatu zuen EAJk.

### Euskaltegian, bonifikazioa

Zerga ordenantzen gaineko eztabaidak hartu zuen osoko bilkuran zati handiena. Hobariak, boni-

fikazioak, aurtengo baldintzekin jarrai dezatela onartu zen, zergadunaren errenta-maila ere kontuan hartuta. Euskaltegiko erabiltzaileendako hobari berria onartu zen: aurrerantzean, subsidioa edo oinarritzko diru-sarreraren bermea kobratzen dutenek ere ez dute matrikulazio-tasarik ordainduko. Bestalde, establezimendu komertziala irekitzeko lizentziaren tasa %30 txikituko da.

Salbuespenek, igoko diren tasek, piztu zuten eztabaida handiena osoko bilkuran. Horien artean, kiroldegiko tasen igoera dago. Bilduk hori argumentatu zuen esanez Oñatin kirol ikastaroen zerbitzua ematen duten enpresek BEZA asko igo dutela eta Udalak derrigorrez erabiltzaileei horren eragina pasa behar diela. EAJren proposamena izan zen KPIa igotzea, esanez onartutako igoerak "larregikoak" zirela.

Bestalde, Ondasun Higiezinaren arloan inor erroldatuta ez dagoen etxebizitzetako kontribuzioa bikoiztea onartu zuen udal gobernuak, joan den astean bertan Aretxa-

baletak egin duen moduan. Horren helburuetako bat, Bilduko ordezkarien esanetan, etxebizitzaren errenta merkatua bultzatzea da. Salbuespen batzuk daude: besteak beste, zaharren egoitzetan bizi direnen etxeak; babes ofizialekoak, bertara bizi izatera joateko tartean; jarduera ekonomikorako erabiltzen diren egoitzak... EAJk proposatuta, baserriak eta mendokotasunagatik beste etxebizitza baten bizi direnen etxeak salbuestea onartu zen. EAJren proposamena %50eko errekar-gua ezartzea zen.

### Tarifak eguneratu egin dira

Kiroldegi inguruko eta Kalegoieneko aparkalekuen erregimenak ere eguneratu ziren. Kiroldegikoan bi orduko doako epea eta, Kalegoienekoan, 30 minutukoa onartu ziren, eta tarifak 0,06 igoko dira. Bestalde, ordainpeko epean, tarifak desberdinak dira, segun eta zenbat denboran erabili. Biain alkatearen esanetan, "herritarrak apenas igarriko" duen igoera. Baldintza horiekin, "plazako apar-

## EAJren proposamena, %2,4 igotzea

EAJk, orokorrean, KPIa igotzea (%2,4) proposatu zuen, salbuespen batzuekin. Arrazoi orokor gisa hauxe eman zuen: "Udalak kompetentzia osoa du zergak eta tasak ezartzeko. Horiek dira diru sarrera garrantzitsuenetarikoz batzuk eta behar-beharrezkoak zerbitzu publikoak ziurtatzeko". EAJren bozeramaileak, Lourdes Idoiak, gaineratu zuenez, "langabezian, oinarritzko errenta edo pobrezian dauden herritar edo familiek hobariak dituzte Oñatin. Beraz, KPIa igotzea fiskalitate progresiboa aplikatzea da eta, dauden salbuespen eta hobariekin, inor ez da geldituko bide bazterrean".

kalekua desagertuta sortu diren behar berriei erantzun" eta "aparkalekuak norberarendako aparkaleku finko bihurtzea" ekidindoa, Bilduren esanetan.

EAJk, aldiz, bi aparkalekuek "baldintza berberak" izatea proposatu zuen. Euren iritziz, "biak dira zerbitzu publikoak, nahiz eta baten ondoan kiroldegia, ikastola eta anbulatorioa egon eta bestearenean ez".

### Zaborren tasa ere, berdin

Atez ateko sistemarekin lotutako datorren urteko zabor tasa ere izoztea erabaki da. Mankomunitateko Gobernu Batzordeak onartu duen igoera (%6,4) herritarrei ez ezartzea erabaki da, beraz. EAJk hori gaitzetsi zuen, eta esan zuen atez atekoa ezartzen denean "zerotik hasia" ez duela egoki ikusten. Bilduren erantzuna izan zen kalkulua ekonomikoak "aurreikuspenetan oinarrituta" daudela, eta benetako datuak dituenean hartuko dituela hartu beharreko erabakiak.

Zaborren kudeaketarekin lotuta, atez atekoaren aurkako eta 5. edukiontzia aldeko Pap Ez Oñati plataformak batu dituen 2.416 sinadurak alkateari eman zizkion eguen eguerdian.

## 'Lo imposible' filmaren zortzi emanaldi izango dira

*Lo imposible* film arrakastatsua ikusteko aukera izango da kultur etxean. Zortzi saio programatu dituzte: azaroaren 1ean, 3an eta 4an, 19:30ean eta 22:30ean; azaroaren 2an, 22:30ean; eta azaroaren 5ean, 19:30ean. Juan Antonio Bayona espainiarra zuzendu du eta Naomi Watts eta Ewan McGregor dira antzezleak.

## Kanposantua zabalik egongo da Domu Santu egun osoan

Kanposantua beti zabalik egoten da eta Domu Santu egunean ere halaxe izango da. Egunean ere halaxe izango da. Egunean joan ahal izango dira herritarrak bertara, Domu Santua ospatzera.

Saso baten, gauean itxita egoten zen kanposantua, baina bada denbora bat beti zabalik uzten dena.

## Salgai daude turismo bulegoan Azpiazu eta Zelaiaren seiluak

Jose de Azpiazu eta Julian Zelaia musikari oñatiarren omenezko seiluak saltzen hasi da dagoeneko turismo bulegoa. Bakoitza 1,20 eurotan salduko dute. Oñatiko CECA filatelia eta numismatika elkarteak prestatu ditu seilu biak, Oñatiko musikari batari zein besteari aurten egin dizkieten omenaldien harira.

## Urriaren 30a, eskulan ikastaroa ordaintzeko azken eguna

Udal Kultura departamentuak antolatutako eskulan ikastaroen matrikula urriaren 31 baino lehen ordaindu behar da. Ume eta gaztetxoek 51 euro ordaindu behar dituzte; bitxigintza edo bisuteria ikastarokoek, 33 euro; eta helduen ikastarokoek, 70 euro. Ordaintzen ez duenak ezin izango du ikastaroa hasi.

## Kirol tasak gora, BEZa asko igo delako

Kiroldegiko ikastaroetako tasak garestiagoak izango dira datorren urtean. Alkatearen esanetan, "BEZaren igoeraren eragina Udalak jasan du, kanpoko enpresek, kirol zerbitzuak ematen dituztenek, Udalari BEZ zerga igo diotelako. Hori dela eta, kirol ikastaroen tasak igotzera behartuta gaude". Kasuan kasu, %7, %8, %10, %13... igoko dira tasak, ikastaroaren arabera.

EAJk, aldiz, KPIa igotzea proposatu zuen, hau da, %2,4. EAJko bozeramaile Lourdes Idoiakaren esanetan, "hainbat sektoretan ere BEZA igo da eta Udalak bere gain hartu du igoera hori. Beraz, kirol ikastaroetan gauza bera ez egitea ez zaigu koherentea iruditzen".

Bilduk EAJri erantzun zion esanez kirol jardueren gaineko BEZ igoera "herritar guztiok" ordaindu beharra ez zuela bidezko ikusten.



Zubikoa kiroldegia. | MIREIA BIKUÑA

## Txantxikua topatzeko eta 50 euroko bonua lortzeko azken egunak

Txandaren txantxikua topatzeko aukera dago urriaren 31ra arte. Horrekin bukatuko da aurtengo lehiaketa. Dagoeneko 400 bat euro banatu ditu Txandak, 50 euroko erosketa bonutan. Bereziki helduei egiten diete dei, animatu daitezten eta Txandaren dendetan txantxikua non ezkututzen den bila dezaten.

## ARETXABALETAKO

# Bittor Agirreurretaren argazkia Murrukixoren egutegia egiteko

10 argazki aurkeztu zituzten lehiaketara, eta lan zaila izan du epaimahaiak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Datorren urteko egutegirako argazkia hautatzeko lehiaketa deitu zuen Murrukixoko mendizale elkarteak irailean, eta dagoeneko hautatu dute irabazlea: Bittor Agirreurreta arrasatearrak Areantza auzoari ateratako argazki dotorea, hain zuzen.

Hamar bat lan aurkeztu zituzten lehiaketara: "Guztiak oso txukunak", jakinarazi du Murrukixoko presidente Iñaki San Migelek, eta aitortu du epaimahaiako kideendako ez dela batere samurra izan erabakia hartzea: "Zortzi argazkiren artean ezin hautatu ibili ziren, oso politik zirelako". Azkenean, Areantza auzoa lainoan agertzen den horren alde egin zuten. Elkarteko bazkideek laster jasoko dute argazki hori duen egutegia.



Murrukixoren egutegiaren argazkia: Areantza auzoa lainoan. | B. AGIRREURRETA

## 25. urteurrena ospatzeko

Aurten, gainera, mendizale elkartearen 25. urteurrena ospatuko dute. Hala, abenduan hainbat ekitaldi egingo dituztela iragarri dute; tartean, mendi irteerak, hitzaldiak eta argazki emanaldiak.

25 urteotan Murrukixoren bueltan gertatutako ekitaldi garrantzitsuenen argazkiak jaso gura dituzte abendura bitartean, ondoren herritarrei erakusteko Durana kalean egingo dituzten emanaldietan.

## ESKORIATZAKO

# Herriko frontoiak sabai berria du dagoeneko

A.T. | ESKORIATZAKO

Eskoriatzako frontoiko teilatua obrak egin dituzte. Izan ere, frontoian argitasuna sartzeko teilatua zeuden plaka zeharrargiak erabat hondatuta zeuden; poliesterra urteekin oso erraz hondatzen den materiala da, eta oso argi gutxi sartzen zen.

Udaletik beharrezkoa ikusten zuten aldaketa egitea eta material hori ordezkatzeko. Hilaren hasieran hasi zituzten obrak,

eta dagoeneko amaitu dituzte.

Frontoiko sabaian egin duten obrarekin, 375, metro karratu plaka zeharrargi aldatu dituzte eta horren ordez Rovilux motako plakak jarri dituzte.

Orain, Beñat Herce alkatearen esanetan, argi natural gehiago sartzen da frontoira, eta, horren ondorioz, argi artifizial gutxiago erabiliko da eta kostua ere murriztu egingo da. Lanen aurrekontua 20.000 euro izan da.



Frontoia sabai berriarekin. | ESKORIATZAKO UDALA

## ARETXABALETAKO

# Ahotsa zaintzen ikasteko eskolak Loramendirekin

M.A. | ARETXABALETAKO

*Ahotsa zaintzen ikasi nahi al duzu?* izenarekin ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak azarorako. Eskolak egubakoitz iluntzean izango dira azaroren 9an hasi eta 30era bitartean, ordubetekoak (19:15-20:15). Izena eman gura duenak Loramendira jo dezala -943 77 09 70 edo [loramendielkartea@gmail.com](mailto:loramendielkartea@gmail.com)-; azken eguna azaroren 2a da. Prezioa: bazkideek 13 euro eta gainerakoek, 15 euro.

## Esan logopediako aditua

Aretxabaleako Esan logopediako zentroko adituak emango ditu eskola horiek eta teoria eta praktika uztartuko dituzte saioetan. Lanbide batzuetan ahotsa zaintzea oso garrantzitsua dela gogoraraziko die elkartutakoek, irakaskuntzan esaterako, eta zaintzeko zer egin argituko du: ariketak, atsedean eman...

## ESKORIATZAKO

Yurre Romaratezabala | Aste Zapatistako antolatzailea

# "Txiapastik beste balio batzuekin bueltatzen naiz"

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZAKO  
Yurre Romaratezabala Aste Zapatista antolatzen ibiltzen da Eskoriatzan. Txiapaserako bidea hartuko du azaroren 4an eta hantxe izango da otsailaren 25era arte. Aurten 19. aldiz doa Txiapasera, eta, azken bospasei urteetan bezala, Queretarora ere joango da.

## Dena prest?

Oraintxe azkenengo gauzak prestatzen. Aurten 9.000 euro inguru eramango ditut hangoei laguntzeko. Ferietan eta Mundumira jaietan jasotzen dut diru hori. Horrez gain, bestelako taberna eta lokaletatik ere jasotzen dut laguntza; besteak beste, Eskoriatza, Arrasate, Aretxabalea, Bergara, Leintz Gatzaga, Soraluze, Aramaio, Marieta eta Bastidako hainbat tokitan laguntzen didate diru hori lortzen.

## Zertan lagunduko duzu han?

Proiektu bat daukagu hango emakume presoak kartzelatik irteten direnerako. Emakume horiek indigenak, pobreak eta familia bakoak dira. Joan den urtean, esaterako, sei emakume atera zituzten kartzelatik eta eurei lagundu genien ohea eta mantak lortzen eta etxeko beste material batzuk edukitzen.



Romaratezabala. | Y. ROMARATEZABALA

Birgizarteratzen laguntzen diegu. Aurreko urtean 1.000 euro eman genien, eta aurten ea 1.500 inguru ematen diegun. Gabonetan oihanean egoten naiz eta hangoei sendagaiak eta eskola materiala eramaten diet, besteak beste. Eguzki plaka bat ere erosi nien beste behin. Gabezia asko daude eta horiek estaltzen saiatzen naiz.

## Zertarako balio dizu han bizitakoak?

Sakrifizioa izaten da, baina asko betetzen nau. Oxigenatuta eta beste balio batzuekin bueltatzen naiz Eskoriatzara. Ideia eta gogoekin gauza asko egin daitezke, baina konpromiso handiagoa falta da.



ARETXABALETAKO

# Kristina Gomez saria Aretxartek

Aretxarte merkatarien elkarteak banatutako azken saria Kristina Gomez aretxabalearrak jaso du. Aretxabalea Iturgintzan erosketan egitearren jaso zuen Anitua farmaziako kideek emandako oparia. Aretxarteren asmoa da orain arte legez opariak banatzen jarraitzea herriko bezeroen artean.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan  
**EUSKARAZ**  
plazera delako!

Aretxabaleako  
Udala  
EUSKARA SAILA

## ARAMAIO

Belen Agirre | Itur-Zuri emakume elkarteko presidentea

## "Udalarekin harremana beti izan da ona, herri txikia izatea abantaila bat da"

Arrasatearra da baina 20 urte daramatza Aramaion eta bi Itur-Zuri elkarteko presidente moduan; eskulanen talderako kide berrien bila dabiltzala esan digu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Bi urte daramatza Belen Agirrek (Arrasate, 1964) Itur-Zuri elkarteko presidente moduan. Arrasaten jaio arren 20 urte daramatza Aramaion. Elkartean 130 bazkide dira egun baina eskulanen talderako kide berrien bila dabiltza, prezioak igo ez daitezzen. Zapatuko erretiratuen jaian, urtero jartzen duten postuan erakutsi zieten herritarrei urtean zehar egindako eskulanak.

## Nola amaitu duzu Itur-Zuri elkarteko presidente moduan?

Duela hiru urte eskulanen taldean sartzea erabaki nuen baina horretarako ezinbestekoa zen elkarteko bazkide izatea. Hala, zuzendaritza taldea berritzeko bilera egin zuten eta ni izendatu ninduten presidente, nahiz eta ez nintzen bilera horretan egon. Egun idazkariak, diruzainak eta nik neuk osatzen dugu zuzendaritza taldea.

## Eskulanen taldeak sortu zen Itur-Zuri elkartea bera. Baduzue beste talderik elkarrekin barruan?

Urte osorako antolatzen ditugun ekintza iraunkorrak eskulanak eta yoga izaten dira.

Esandako moduan, Itur-Zuri elkartea bera eskulanetarako taldeak sortu zen eta egun kide berriak sartzea eskertuko genuke. Kontua da taldearen biziraupena arriskuan ez badago ere, prezioak ez igotzeko jende gehiago behar dugula.

## Nolakoa da Udalarekin duzuen harremana?

Oso ona. Udalarekin beti izan dugu harreman ona. Diru-laguntza ematen digute urtero eta jakin badakite herriarendako hainbat ekintza antolatzen ditugula. Aramaio herri txikia da eta hori guretako abantaila bat dela esango nuke. Denok ezagutzen dugu elkar eta Udaleko ordezkariekin ere harremana estua da. Hau da, Udalaren aldetik zerbait behar



Belen Agirre bere jaioterrian. 20 urte daramatza Aramaion bizitzen. | J. BEREZIARTUA

badugu dagokionari kalean trago bat hartzen gaudela eskatu diezaiogegu.

Ofizialak diren kontuak eskatzeko bitarteko ofiziosak erabiltzen ditugu. Beraz, ez dago arazorik. Nire ustez, halako tratua ezinezkoa da herri handietan edo hirietan.

## Herriarendako hainbat ekintza antolatzen dituzuela diozu. Zeintzuk dira, bada, ekintza nagusiak?

Hainbat dira baina hauexek nabarmenduko nituzke: urriaren 12ko pintura lehiaketa, Martxoaren 8aren bueltan antolatzen dugun Emakume Astea eta Aratusteetan banatzen dugun txokolata.

Horrez gain, hitzaldi eta tailerrak antolatzen ditugu; horiek ekitaldirik ez dugunean antolatzen ditugu batez ere.

## "Eskulanen taldean prezioak igo ez daitezzen jende berria behar dugu"

## Zineforuma antolatu dute, bihar hasita

Itur-Zuri elkarteko zineforuma antolatu dute aste honetarako eta hurrengorako; udazkenean ekintza gutxi izaten direlako antolatu dute. Hauexek dira ikusi ahal izango diren pelikulak: bihar, urriak 30 *Inside Job*, azaroaren 6an *Una verdad incómoda* eta azaroaren 8an *Bowling for Columbine*. Pelikula horiek guztiak Kultur etxean proiektatuko dira, 18:00etan.

Zikloarekin amaitzeko ipuin kontaketa saioa izango da Sastiñan, azaroaren 10ean (22:00). Ernesto Agirre izango da kontalaria eta baikorrendako saioa dela aurreratu dute: *Quien dijo que todo esta perdido?*

Urtero legez tailer txiki bat ere izango da Labidea denda alboan lokallean umeek artisauen lana ezagut dezaten. Ukenduak egiten jardungo dute bertan.

## Sagar zuku probatzeko

Bestalde, herritarrek sagardoa zelan egiten den erakutsiko dute San Migel plazan, iaz legez: sagarrak txikitu, zuku atera eta zuku hori probatzeko aukera eskainiko dute. Iazko arrakastaren aurrean erakustaldia errepikatzea erabaki dute.

Eta gatz museoa zabalik egongo da egun horretan. Sua egingo dute, gainera, gatz ekoizpenaren prozesu osoa erakusteko.

## ELGETA

## Harrera polita izan du 'Elgeta kantuan' ekintzak eta jarraipena izango du

Kantuan egin zuten atzo txikiteoa Elgetan; lagun talde polita ibili zen tabernaz taberna

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lehenengo deialdia izateko jende kopuru polita gerturatu zen atzo, domeka, *Elgeta kantuan* ekimenean parte hartuz. Entseguetan hamar bat lagun batu izan dira, baina atzokoan 60 bat pertsona ibili ziren kalez kale eta tabernaz taberna.

Helburua zen herrian giroa sortzea, eta proposamena domekako txikiteoa kantuan egitea. Jose Gardoki soinu-joleak eta Beñat Leanzabarrutia pandero-joleak lan ona egin zuten giroa alaitzen. Musikarekin lagun-duta, berezia izan zen atzoko txikiteoa. Eguraldiak ere bat egin zuen ekimenarekin; atertu eta eguzki izpiek apur bat gehiago goxatu zuten giroa.

## Antolatzaileak pozik

Jose Antonio Retolazaren gidaritzapean eta banatutako liburukak eskuan hartuta euskal kantu ugari abestu zituen taldeak. Herriko taberna guztiak bisitatu zituzten bata bestearen atzetik, eta bakoitzean pare bat kantu abestu zituzten.

Parte-hartze irekiko ekintza izan zen, eta turismo zinegotzia den Patxi Basaurik balorazio positiboa egin du. "Oso pozik gaude jende asko gerturatu delako. Jarraipena emango diogula pentsatzen dut. Gabon aurretik-edo egin daiteke beste deialdi bat. Ikusi egin behar dugu barikuarekin edo domekarekin egin... Hori guztia baloratze dago", adierazi du.



Elgeta kantuan atzo eguerdian San Roke kalean. | L.Z.

## ANTZUOLA

## Txalaparta eta biodantza ikastaroetan izena emateko epea zabalik

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Azaroan eskainiko dira txalaparta eta biodantza ikastaroak. Izena emateko epea zabalik duzue. Biodantza ikastaroa 4 eta 11 urte bitarteko umeendako da. Astelehenetan eskainiko da, 16:50etik 17:50era bitartean. Irakaslea Mentxu Arjonilla izango da. Ordaindu beharrekoa, aldiz, hileroko 12 euro. Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 15era arte.

Txalaparta ikastaroa, aldiz, nahi dutenendako da, gazte zein helduendako ikastaroa da. Azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean, denak zapatuetan, eskainiko dira. Orduetara, 11:00etatik 13:00etara. Irakasleak, aldiz, Arrasateko txalaparta elkarteko bi kide izango dira. Prezioari dagokionez, ordaindu beharrekoa, 24 euro ikastaro

osoa; izen-emate epea azaroaren 6an bukatzen da.

Izena emateko, idatzi [kultura@antzuela.net](mailto:kultura@antzuela.net) helbidera edo udaletxera jo, 943 76 62 46 telefonora deituta.

## Batzar irekiak

Bihar, 19:00etan, hauteskunde emaitzen balorazioa egiteko asmoz, batzar irekia egingo du Antzuolako EH Bilduk, Olanen kultura etxean.

## Hitzaldia eta solasaldia

Gaur, 17:00etan, erretiratuen elkartean, *Merkataritza-establimendutik kanpoko salmentak eta mirari-produktuak* izeneko hitzaldia eskainiko du Jon Ariño sendagileak. Ondoren, gai horri buruzko tailer praktikoa egingo da Begoña Olabarrietak zuzenduta.

## LEINTZ GATZAGA

## Azaroaren 11n ospatuko den San Milixan feria ia gertatuta daukate

Pilotalekuan 15 artisau izango dira, eta plazan herritarrak, sagardoa zelan egin erakusten

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

San Milixan eguneko feria gero eta gertuago dago, azaroaren 11n hain zuzen, eta Udal ordezkariak ospakizuna gertatzen dabiltza herritarrekin batera. Artisau feria izango da protagonista pilotalekuan eta herritarren erakustaldia plazan. *Sorginak* ere inguruan izango dira taloak egiten.

Pilotalekua handik eta hementik etorritako artisauarekin beteko da, 15 inguru, eta eskuz egindako produktuak erakutsi eta saltzeko asmoarekin etorriko dira. Horiekin batera ohikoak ez diren bi postu jarriko dituzte: Dorleta txirrindulari lagun elkartearena eta Antzuolako Anelkar gobernuz kanpoko erakundearena.



## URRIKO IRABAZLEAK


### Debagoiena ezagutzen

- Jon Pildain Igartua (Oñati)
- Lierni Olmedo Palacios (Oñati)
- Txaro Velez de Mendizabal LLodio (Arrasate)
- Miren Gurutze Arana Oregi (Bergara)



### Dantza emanaldia

- Jesus Mari Elkorro Iturriaga (Arrasate)



### Haur antzerkia

- Felix Arrese Alberdi (Aretxabaleta)



### Gatillazoren kontzerturako sarrerak

- Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)



### Bypass filmerako sarrerak

- Espe Lizarralde Gallastegi (Arrasate)
- Ainhoa Osa Etxebarria (Arrasate)
- Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)
- Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)
- Axun Otxoa Ugalde (Arrasate)



## ZORIONAK!

## Atera etekina

goienakluba 2012

### Sukalde osoa erosita, MIKROUHIN-LABEA OPARI



### LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL

**AQUARIUM**  
Donostiako aquarium-a  
Donostia, 943 44 00 99

**ARGIA**  
euskarazko aldizkari orokorra  
Lasarte-Oria  
943 37 15 45 - 943 37 34 03

**AVIA MECA**  
gasolindegia  
Arrasate, 943 79 13 39

**BEGIENDO**  
optika  
Aretxabaleta, 943 79 98 21

**EUREKA!**  
zientzia museoa  
Donostia, 943 01 24 78

**ESKO SPORT**  
kirol denda  
Eskoriatza, 943 71 52 96

**GAHIR**  
fisioterapia-osteopatia  
Eskoriatza, 943 71 43 41

**GAES**  
entzumen zentroa  
Arrasate, 943 71 27 93  
Bergara, 943 76 94 55

**GUZTIZ EDER**  
edertze zentroa  
Oñati, 943 78 01 46.

**IZENADUBA BASOA**  
Euskal Herriko parke mitologikoa  
Mungia, 94 674 00 61

**LASTAI**  
haurtzaintza eta atsedeen gunea  
Gasteiz, 945 35 85 59

**LILURA**  
edertze zentroa  
Bergara, 943 76 31 71

**MULTIOPTICAS**  
lehenaz zerbitzu optikoetan  
optika  
Arrasate, 943 79 29 95  
Bergara, 943 76 15 75

**JAIXAK**  
denda  
Bergara, 943 76 31 45

**NAREN**  
fisioterapia zentroa  
Aretxabaleta, 943 08 21 89

**RENAULT AUTOBERRI**  
kontzesionarioa  
Arrasate, 943 71 24 72



**TXURI URDIN**  
izotz jauregia  
Donostia, 943 46 44 00



# KIROLA



Crespo Arrasateko jokalaria baloiaren jabe. Lopez kapitaina du atzean, eta urrunago Dueñas, atzoko lehenengo golegilea. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

## Mondrak hiru gol egin dizkio Aloña Mendiri Azkoagainen

- Moralki batez ere garaipen garrantzitsua da Arrasateko taldearendako
- Oñatiarrendako kolpe gogorra izan da, eta emaitza "zigor handitxo"

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Puntuak behar zituen Mondrak saiklapenean gora egiteko, eta garaipena ere bai urduritasunak baretzeko. Partidua hasi eta 15 minutura egin zuten Lutxo Iturrinoren mutilek lehenengo gola Dueñasen ekimenez. Oñatiko atezainak atzamar puntekin ukitu zuen baloia, baina gaintetik pasa zitzaion.

Lehenengo gola jasota, gogor ekin zioten erasoari etxekoek,

eta pentsatzekoa zen hainbesteko ahaleginak jasoko zuela saria. Baina ez zen horrela gertatu, eta atsedenean 0-1ekoa zen markagailuan.

Bigarren zatian bestelako arerio bat izan zuten aurrez aurre Aloña Mendikoek. Arrasateko

mutilek lan ona egin zuten atzeko lerroetan, eta nahiz eta aukera gutxi sortu gola egiten asmatu zuten. Polita izan zen 0-2koa. Aizpuruak jaurtiketa indartsu eta zuzena egin zuen, eta oztupo barik baloia sarera joan zen zuzenean. 67. minutua zen.

**Mondra defentsan**

Bigarren golak min handia egin zion Azkargortaren taldeari. Mondrak, bere aldetik, bost gizon ipini zituen atzeko lerroan. Oñatiarrek aukera gutxi izan zuten ganorazko ezer egiteko, eta hori gutxi balitz gatzik gabeko jokala-

EMAITZA

ALOÑA MENDI

0-3

MONDRA

di horietako batean 0-3koa egin zuten Arrasatekoek. Kasu honetan Iker Uribarren izan zen golegilea, eta egindako keinuengatik bera ere ezustean harrapatu zuen golak.

Aloña izan zen atzoko galtzaile handia; jarraian hiru partidu irabazi dituen taldearendako kolpe gogorra izan zen. Baina Andoni Azkargorta entrenatzaileak argi dauka: "Akatsetatik ere ikasi egin behar da, eta guk argi dugu gure helburua zein den: 40 puntu batzea eta talde gaztea izanik partiduz partidu taldea egiten joatea".

ANDONI AZKARGORTA | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Ni izan naiz gaur fin ibili ez dena"

Aloña Mendiko entrenatzaileak Oñatiko jokalarien jarrera ona nabarmendu zuen partidu amaieran.

**Zure ustez emaitza justua da?**

Egindako jokoa kontuan hartzen badugu,

bai. Orokorrean gu baino gehiago izan dira, eta gauza askotan. Baina zigor handitxo iruditzen zait. Ez dira hainbestetan iritsi.

**Zein izan da arazoa?**

Jarrera aldetik taldea ondo aritu



LZ

da. Nik egin dut akatsa. Partidua planteatzerakoan ez naiz fin ibili, eta ez dut egin beharreko zuzenketetan asmatu. Argi dut nirea dela errua.

**Mondraren jokoa sorpresa izan da?**

Aurreko astean ikusi nituen. Beste arerio bat zuten aurrean, baina jokalarien ezaugarriek ez didate ezustean harrapatu. Eta egia esan Arrasate gustatu zait. Bai.

LUTXO ITURRINO | MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Garaipen oso garrantzitsua da"

Gustura zegoen Mondrako entrenatzailea partidu amaieran.

**Pozik gaurko emaitzarekin?**

Oso pozik. Atzeko postuetatik urruntzen gara, eta has gaitzke gora begiratzen.

**Moralki, beraz, emaitza garrantzitsua gaurkoa.**

Bai. Ez dugu etxean partidurik irabazi eta garaipen honek lasaitasuna emango digu eguenean



LZ

Mojategin Bergararen aurka dugun partidurako.

**Non egon da gaurkoa?**

Atzeko aldean egin dugun partidurik onena izan da gaurkoa. Lehenengo

zatiarekin ez nago oso gustura, baina bigarrenen ez diogu Aloñari bere jokoa egiteko aukerarik eman. Lan asko gelditzen zaigu egiteko, baina beti da ona atzeko aldean fin ibiltzea.

### FITXA TEKNIKOA

**Aloña:** Aginagalde, Olalde, Palacios, Bikuña, G. Irizar (Moreno, 72. min.), J. Irizar, Zubia (Millas, 80. min.), Juaristi (Uribetxeberria, 56. min.), Zelaia, Carpintero (Lazkano, 85. min.), eta Lizarra (Lertxundi, 59. min.).

**Mondra:** Zabaleta, Crespo, Kevin, Justel, Zabaleta, Dueñas (Gonzalez, 61. min.), Ormaetxea (Oleaga, 81. min.), Lopez (Ire gi, 85. min.), Aizpuru, Uribarren eta Lander (Azkarate, 68. min.).

**Epailea:** Loran.

## EUSKAL LIGA

# Mondra sailkapenean aurrera, puntua eskuratuta

Partidu gogorra lehiatu zuten Mondrako neskek Athletic taldearen aurka atzo arratsaldean, Mojategin

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Ez zen aise irabazteko partidua izan atzokoa Mondrarentzat. Sailkapen orokorrean bigarren postuan dagoen Athletic jaso zuen -eta etxean. Berdinketari utsita (1-1) puntu bat eskuratu zuten sailkapenean aurrera egiteko.

"Ondo defenditutako partidua egin dute. Euren jokoa egiten ez diote utzi eta presionatuz, lehen zatia oso ondo jokatu dugu", azaldu digu partidua bukaeran Andoni Ezkurrak entrenatzaileak. Lehen zatiko aukera garbiena ere Mondrarendako izan zen, nahiz eta huts egin.

Bigarren zatian, Athletic-ak asko arriskatu zuen, baina, presioa ondo aguantatzeko gai izan ziren etxeok. "Oso jokalaria onak ditu Athletic-ek, baina ondo antolatutako jokaldian Naiara Letek baloia barrura sartu du bat eta hutsekoa eginda".

Ondoren etorri zen banako berdinketa: jokaldi polit baten ondorioz, gola sartu zuen talde zuri-gorriak.

Hurrengo Zarautzen

Hamaikagarren postuan aurkitzen da orain Mondra. Pixkanaka goraka doa eta atzealdean daudenei tartea handitzen.

"Gaurko moduko partidua egiten jarraitzen baditugu irtego gara beheko postuetatik", azaldu digu Ezkurrak.

Zarautzera joango dira datoren domekan. "Aurten igotako taldea da, baina taldekideak beterranoak direnez, ez da bat ere erraza izango partidua: gogorra izango da. Gainera, zelaia handia da eta fisikoki ez da samurra izango. Oso parekatutako partidua izango da", esan du Ezkurrak.



Lehia bizia izan zen atzo Mojategin. | JOSETXO ARANTZABAL

## OHOREZKO ERREGIONALA

## Bergarak gol festa eskaini zuen Agorrosinen zapatu arratsaldean

M.A. | BERGARA

Lau gol sartu zizkioten bergarrek Beti Gazte taldeko mutilei (4-1). Lehenengo zatian 2 eta 0-ko markagailuarekin lasai joan ziren bergararrak atsedenaldira. Iñigo eta Eloik sartu zituzten golak. Bigarren zatian aukera eta gol gehiago etorri ziren; baina, hasi eta berehala, penalti bat aurka izan zuten, 2-1 jarriz markagailua. Ondoren etorriko ziren Baltzategiren bi golak. Bergarakoek partidua osoa mendean izan zuten eta aukera onak izan zituzten.

Jokalaria bat gutxiago

Lehenengo zatian Bergarak penaltiz gol bat sartu eta Beti

Gaztekoak jokalaria bat gutxiagorekin geratu ziren. Horrek, duda barik, eragina izan zuen lehia eta argi geratu zen bergarren domeinua eta kontrola une oro partiduan zehar.



Baloiarekin lehia. | JOSETXO ARANTZABAL

## ERREGIONAL PREFEREN.

### Antzuolak lider jarraitzen du hamalau punturekin

Pozik egoteko moduko denboraldia egiten ari dira antzuolarrak. Zapatuan, Hamaika Bat taldeari hiru gol - Ander Aranak 2 eta Josu Zubikaraik 1- sartu zizkion. Debako taldeak etxean jokatzeko zuten arren ezin izan zuten garaipena lortu eta gol bakarra sartu zion Antzuolari.

## OHOREZKOERREGIONALA

### Aretxabaletarrek Real Unionen aurkako partidua galdu dute

1 eta 0-eko markagailuarekin, UDAk etxetik kanpo, Real Unionen aurkako asteburuko partidua galdu egin du. Aretxabaletarrek hamaikagarren postuan daude sailkapen orokorrean eta bederatzita puntu dituzte. Real Union aldiz, seigarren postuan dago eta hamaiki puntu ditu.

# 190.000€ (BEZ barne)



ITURRIZAR KALEA

## AUKERA EZIN HOBEA ARETXABALETA ERDIALDEAN

ETXE BIZITZAK:

2 logela

2 bainugela

Sukalde hornitua

Ganbara bikaina

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

ORTUZAL PROMOCIONES S.L,  
Tel.: 943 76 11 18 - 943 79 40 00



Mikel, Joakim eta Imanol Sustraitxorekin. | A.E.



Eneko Blanco jokalariei aginduak ematen, hutsartean. | JOSETXO ARANTZABAL

## EBA LIGA

# Defentsa onari esker lehenengo bi puntuak etxean

- ▶ Natra-Oñatik zapatuan hasi zuen liga Easo pastas Arruabarrenarekin
- ▶ Hurrengo aste bukaeran Santurtzira joan beharko dira oñatiarrak

## ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Jagoba Gamarra, Imanol Ceciaga, Ander Gartzia, Josean Cavada eta Asier de La Iglesiarekin hasi zuen lehia Natra-Oñatik zapatuan. Bost jokalar horiekin eta gaintzekoen laguntzarekin, samur irabazi zuen Aloñak ligako lehe-

nengo lehia: 70-50 gailendu ziren Eneko Blancoren mutilak Zubikoan Donostiako Easoren aurka. Harmailak bete egin ziren etxeko taldea ikusteko, eta jokalariek ez zuten hutsik egin. Hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik, eta aldea mantentzeko gauza

izan ziren amaierara arte. Lehenengo laurdenean 21-10 jarri ziren aurretik etxekoak. Defentsa lanean, eta batez ere taula azpian, oso ondo ibili ziren. Erreboteetan jaun eta jabe izan ziren oñatiarrak eta lan horri esker baloiak berreskuratu eta erasoan irteteko auke-

ra asko izan zituzten. Atsedenaldira 40-24 aurretik iritsi ziren etxekoak.

**30 puntuko aldea**

Hirugarren laurdenean erritmoari eutsi egin zioten oñatiarrak. Hala, 24-11ko partziala eginda

64-35 aurretik jarri ziren. Azken laurdenean erritmoa jaitsi egin zuten etxekoek eta aukera hori aprobetxatu zuten donostiarrak aldea murrizteko. Gainera, entrenatzaileak aulkian zituen jokalar guztiei kantxara irteteko aukera eman zien.

Eneko Blanco Aloñako entrenatzailea pozik zegoen taldeak egindako lanarekin. "Gaurkoan defentsan ondo ibili gara. Bage-nien garrantzitsua izango zela errebotea zaintzea, batez ere defentsakoa, eurak oso gogor sartzen direlako kanpotik. Nik uste dut hor nahiko ondo defenditu garea eta horregatik kontraerasoan irteteko aukera asko izan ditugu. Bestalde, erasoan baloi gutxi galdu ditugu", nabarmendu zuen amaieran.

Datorren astean Santurtziren aurka jokatu dute oñatiarrak. Etxetik kanpo ahalik eta emaitza onena ateratzea da helburua.

## ENEKO BLANCO | ENTRENATZAILEA

## "Emaitzak nahiko argi uzten du gehiago izan garena"

Eneko Blanco Aloñako entrenatzailea pozik zegoen zapatuan taldeak egindako lanarekin. Etxeko partiduak irabazteak duen garrantzia nabarmendu zuen, beste behin, Blancok.

**Lehenengo lehia eta garaipena. Liga hasteko modu ona, ezta?**

Bai, hilabete honetan esan dudan bezala, etxeko partiduak oso garrantzitsuak dira eta aurrera atera beharrekoak. Gaurkoan, 20 puntugatik irabazi dugu eta alde horretatik pozik gaude, gustura.

**Nola ikusi duzu taldearen lana lehenengo jardunaldi honetan?**

Atsedenaldira nahiko ondo bideratuta geneukan partidua. 3. laurdenean beste pauso bat eman dugu aurrera:

24-11ko partziala egin dugu. Azken laurdenera sartu gara 30 puntuko aldearekin. Hori dela-eta, erlaxatu egin gara, jokalar aldaketa gehiago egin ditut kantxan eta pixka bat behera etorri gara. Gainera, eurek defentsa igo dute eta hor aldea zerbait murriztea lortu dute. Azkenean, 70-50eko emaitzak nahiko argi uzten du gehiago izan garena.

**Behin partidua bideratuta hainbeste jokatzen ez dutenei eman diezu aukera. Hori ikusleek ere eskertzen dute.** Bai, hirugarren laurdenean 30eko aldearekin irabazten gindoazen eta

hainbeste jokatu ez duten jokalariek sartu ditut, baita laugarren laurdenean ere. Azkenean 11 jokalarirekin ibili gara; Ales Anduaga molestia batzuekin ibili da eta berotzen ibili den arren ez du jokatu. Gaurko partidua zen denak jokatzea. Nik firmatuko nuke: etxeko partiduetan 12 jokalariek jokatzea eta, nola ez, irabaztea.

**"Firmatuko nuke etxeko partiduetan 12 jokalariek jokatu eta irabaztea"****Bestekoa da partiduak aurrera ateratzeko.**

Bai, hori horrela da. Gaurkoan, beldurra ez, baina bai pentsatu dut lehe-

nengo partidua izanda ea zenbat ikusle etorriko diren. Azkenean hain maila bete egin da eta nik uste dut ikusleek ondo pasatu dutela, batez ere lehenengo hiru laurdenetan; azkenekoan, beharbada, indar pixka bat galdu du partiduak. Agian azkeneko laurdena soberan egon da.

**Nola ikusten dituzu jokatu behar dituzten hurrengo partiduak?**

Hasiera batean, etxean jokatu behar ditugun hiru partiduak samur irabaztekoak dira. Hurrengo Salamancako batzuen kontra jokatu behar dugu; eta, hirugarrena Burgosen aurka. Esango nuke horiek ateratzeko moduko partiduak direla. Bestalde, etxetik kanpo jokatu beharrekoak zailagoak



ARANTZAZU EZKIBEL



Ander Gartzia saskiratzea egiten. | JA.



Iñigo Biain lehian. | JA.

## LEHENENGO NAZIONALA

## Mondragon Unibertsitateak irabazi egin zuen: 49-59

A.E. | ARRASATE

Atletico San Sebastianen aurka jokatu zuen Josu Larreategiren taldeak zapatu arratsaldean. Arrasatearrek lan ona egin zuten eta ondorioz emaitza onarekin iritsi ziren etxera: 49-59 irabazi zuten.

Defentsan oso ondo bili ziren, hori izan zen nabarmentzekoa. Hala, defentsa onari esker donostiarrek ezin izan zuten euren jokoa behar bezala egin. Arrasatearrek denbora guztian izan zuten lehia menderatuta. Banakako defentsarekin irten ziren kantzara eta sistema bera erabili zuten lehia guztian zehar.

### Kontzentrazio ona

Erasoko lanari dagokionez, arrasatearren helburua aurkariak estutzea izan zen. Gainera, jokalaria oso kontzentratuta egon zirela nabarmendu du Larreategik. "Etxetik kanpo partidu onak egitea ez da samurra izaten eta oraingoan guk lortu dugu hori egitea", azaldu zuen.

Larreategi entrenatzaileak esan zuen Ander Atxaren lana nabarmentzekoa izan zela zapatuan: "Lan bikaina egin zuen. Sasoian dagoela erakutsi du eta horrek konfiantza emango dio aurrera egiterako orduan". Datorren astean Biok hartuko dute etxean.

### GIPUZKOAKO 1. MAILA

## Bergarako Soraluze taldeak Arrasatekoa mendean hartu zuen

Soraluce BKE-k 73-67 irabazi zion MU A taldeari zapatuan. Bergararrak bederatzigarrenak dira 6 punturekin eta arrasatearrek, 10.ak puntu berdinekin. Datorren astean Bergarak Allerruren aurka jokatu beharko du eta MUK DKS hartuko du etxean. Bestalde, MUko B taldeak 62-57 galdu zuen Katu Kaleren aurka. Aste bukaeran, Ordiziaren aurka jokatuko dute.

### GIPUZKOAKO 1. MAILA

## Eskoriatzarrak oso samur gailendu ziren: 26-59 irabazi zuten

30 puntuko aldearekin irabazi zuten eskoriatzarrek zapatuan Internacionalen kantzian. Lehenengo bi laurdenak oso onak izan ziren eta hirugarrenean intentsitatean beharra egin zuten arren laugarrenean berriro ere indartu ziren eskoriatzarrak. Datorren astean legazpiarren aurkako derbia izango dute, Eskoriatzan, 18:00etan. Igoera fasera-ko garrantzitsua izango da.

### EMAITZA

NATRA-OÑATI

# 70-50

EASO

### FITXA TEKNIKOA

**Natra-Oñati:** Gamarra (8), Ceciaga (7), Gartzia (18), Cavada (4), Zabaleta (3), De la Iglesia (8), Kintana (6), Lizarralde, Xabo (7), Anduaga, Biain (5) eta Odriozola (4).

**Easo:** Egimendia, Seguroa, Arenaza, O. Esnaola, Millares, Alonso, M. Esnaola, Arrieta, Eizmendi, Sanz eta Elizegi.

**Laurdenak:** Lehenengo laurdena: 21-10; bigarren laurdena: 40-24; hirugarren laurdena: 64-35; laugarren laurdena: 70-50.



Gorka Judez zaleei baloiak sinatzen. | A.E.

## Zaleak saritzeko argazki lehiaketa

Jarraitzaileak sarituz hasi dute liga Oñatin. Izan ere, argazki lehiaketa berezia antolatuta dute. Etxeko partiduetan zaleek argazkiak atera eta [alonamendi.saskibaloia@gmail.com](mailto:alonamendi.saskibaloia@gmail.com) helbidera bidali beharko dituzte elkarteok klubeko Facebookeko orrian eskegi ditzaten. Zaleuek argazki onena bozkatu eta hil bukaeran boto gehien dituenak irabaziko du Sustrai fruta dendaren saski ederra. Hileko irabazle guztien artean Gasteizen jokatuko den Errege Kopako bono bi zozketatuko dituzte.



Partidu amaieran jokalariekin argazkiak ateratzeko aukera izango dute, zapatuan izan zuten bezala. | A.E.

## EUSKADIKO MAILA

# Berdinketarekin lortutako puntua izan zen atzoko partiduko onena

Etxeko taldeak ez zuen partidu ona egin Gasteizko Gure Auzuneren aurka

## EMAITZA

FORD MUGARRI

25-25

GURE AUZUNE

## FITXA TEKNIKOA

**Ford Mugarri:** Aranburuzabala, Valle, Alzelai (3), Guruzeta (3), Zuloaga, Bernal (7), Santos (2), Madinabeitia, Herrero (6), Urrutia, Masip (4), Agiriano eta Isasmendi.

**Gure auzune:** Palacios, Gartzia, Barrigon (4), Ruiz (6), Larrea (3), Martinez, Azkoitia (5), Hierro, Moreno (6), Ortiz eta Gonzalez (1).

**Golak:** 1-2, 4-4, 6-6, 7-6, 11-9, 1-13. Atsedena. 15-15, 16-16, 18-18, 22-20, 23-22, 25-25.

## ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Mondrak ez zuen jakin izan auke-  
rak aprobetxatzen eta azkenean  
berdinketarekin konformatu behar  
izan zuen. Ford Mugarrik eta  
Gure Auzunek norgehiagoka txarra  
jokatu zuten atzo Iturripen.

## Erritmoa hartzea kostatzen

Etxeko taldeak sartu zuen partidu-  
ko lehenengo gola baina gero  
markagailuan atzetik joan zen  
denbora luzez. Hain zuzen, 20.  
minutuan aurreratu zen (7-6)  
Jorge Santosek sartutako gol bati  
esker. 12 eta 9 aurretik ere ibili  
ziren etxekoak baina markagai-  
luko aldea mantentzeko gauza ez  
ziren izan eta aldageletara 13-13  
berdinduta joan ziren.

Defentsan gaizki ibili ziren  
Ane Herreroen mutilak; hala  
ere, nabarmendu behar da Asier  
Valle atezainak egindako lana.  
Geldiketa asko egin zituen eta

jaurti zizkioten ia baloi guztiak  
ukitzera iritsi zen.

## Giroa berotu egin zen

Bigarren zatian gauzak berdintsu  
jarraitu zuten. Epailen erabakiek  
eta batez ere gasteiztarren jarre-  
rak giroa berotu egin zuten Iturri-  
pen.

Etxekoak 23-20 aurreratu ziren  
20. minutuan. Lehia bideratuta  
zegoela zirudien arren, arrasa-  
tearrak ez ziren gauza izan alde-  
ari eusteko. Gainera, hiru goleko  
aldearekin eta aurkariak jokala-  
ri bat gutxiagorekin egon arren,  
huts asko egin zituzten etxekoek.  
Hala, gasteiztarrek 25-25 berdin-  
du zuten lehia. Etxekoek erasoan  
izan zuten azkeneko aukera ez  
zuten aprobetxatu; eta, 15 segun-  
doren faltan, Gure Auzunek zuen  
baloia eskuetan. Kanpora bota  
zuten jaurtiketa, partidua ber-  
dinketarekin amaituz.



Jose Herrero jaurtiketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Jorge Santos baloiarekin. | JOSETXO ARANTZABAL

## ANE HERRERO | ENTRENATZAILEA

## "Aldea hartu dugunean ez dugu jakin matentzen"

Ane Herrero ez zegoen batere gustu-  
ra taldeak atzo egindako lanarekin.  
Jarrera falta nabaritu zuen. Egindako  
hutsgeiteetatik ikasi egin behar dute-  
la gaineratu zuen entrenatzaileak.

**Berdinketa lortu duzue. Nola ikusi  
duzu taldea kantxan?**

Partidu txarra izan da, bai erasoan,  
bai defentsan eta baita jarrera aldetik  
ere. Hala ere, puntu bat irabazi dugu,  
hori da gaurkoan atera dugun gauza  
on bakarra. Gainera, behin eta berriz  
esaten dudan moduan, horrelako epai-  
leak ez zaizkit gustatzen. Emaitzan  
ez du eraginik izan, baina ezin da onar-  
tu area batetik bestera horrelako aldea  
egotea zerbait adierazterakoan.



**Markagailuan abantaila hartu duzue-  
netan ez duzue mantendu.**

Hala da, aldea hartu dugunetan ez  
dugu jakin momentu horiek ondo

kudeatu eta markagailuko aldeari eus-  
ten. 55. minutuan, bi gol aurretik gin-  
doazen eta jokalaria bat gehiago geneu-  
kan; ez dugu jakin aprobetxatzen.

**Batez ere bigarren zatian, neurke-  
ta asko berotu da.**

Bai, Gure Auzunek denbora asko gal-  
du du, alde horretatik zakur zaharrak  
dira. Lasai jokatu dute eta kexatu  
besterik ez dira egin. Kexatu arren,  
epaileek ez diete atentzia deitu eta  
eurek egoera hori aprobetxatu dute.

**Partidua amaitzeko 15 segundo  
falta zirenean eurena zen baloia.  
Berdindu, edo galdu, hor egon da  
gaoa.**

Bai, guk aukera izan dugu eta ez dugu  
sartu. Hortaz, euren eskuetan egon  
da azkeneko segundoetan baloia.  
Defentsa ona egin dugu eta euren  
jaurtiketa kanpora joan da. Esan dudan  
bezala, irabazi edo galdu egin gene-  
zakeen gauro lehia. Puntu bat lortu  
dugu eta ez da gutxi.



## GIPUZKOAKO MAILA

## Aloña Mendik irabazi egin du etxean

34-32 irabazi zuen Igor Korkostegik zuzentzen duen taldeak zapatu  
arratsaldean. Aloñako jokalariek ez zuten partidu ona egin; batez ere,  
defentsan ibili ziren gaizki. Lehia guztian markagailuan atzetik joan ziren  
eta defentsan gaizki ibili ziren oñatiarrak. Hala, atsedenaldira 12-16  
atzetik iritsi ziren. Bigarren zatian, atzealdean sistema aldatu zuten eta  
horri esker azkeneko 10 minutuak onak izan ziren. Gainera, erasoan fin  
ibili ziren oñatiarrak.

## EUSKADIKO TXAPELKETA

## Sentsazio gazi-gozairekin itzuli ziren bergararrak Gasteiztik

## A.E. | ARRASATE

Emaitza txarrarekin itzuli ziren  
bergararrak Gasteizko Corazo-  
nistas taldearen kantxatik zapa-  
tuan: 27-23 galdu zuten maho-  
neroek.

Lehenengo zatia irregularra  
izan zen, baina hala ere, Jose-  
txo Muniategi entrenatzaileak  
azaldu zuenez, irregulartasun  
horretan aukerak izan zituzten.  
Bigarren zatian ere ez ziren  
gauzak ondo atera bergarar-  
rentzat. Lehenengo minutuetan 5  
bat goleko aldea hartu zuen  
Corazonistasek, eta hori horre-  
la, emaitzaren mende ibili behar  
izan ziren bergararrak.

## Defentsa lanean ondo

Muniategik sentsazio gazi-go-  
zoak zituen partiduen gainean.  
Alde batetik, defentsan ondo  
ibili ziren, akats gutxi eginez;  
baina, bestetik, erasoan ohi  
baino okerrago ibili ziren ber-  
gararrak. "Gure indarra erasoan  
egoten da, eta oraingoan ohi  
baino okerrago ibili gara", azal-  
du zuen Bergarako entrenatzaileak.

Partiduko azkeneko minu-  
tuetan aldea murrizteko auke-  
rak izan zituen Bergarako tal-  
deak baina aukerak ezerezean  
geratu ziren. Datorren astean  
Ereintza hartuko dute etxean.



Taldeka argazkiak atera eta gero, joklari denek elkarrekin atera zuten azken argazkia. Kantxaren zati on bat hartu zuten guztiek batera. | JOSETXO ARANTZABAL

## ARIZMENDI

# Joklari gazteak, ikastolaren enbaxadore ezin hobeak

- ▶ Arizmendi Kirol Elkarteko taldeak aurkeztu zituzten barikuan
- ▶ Jantzi berriak dituzte, ikastolaren etapa berriaren adierazgarri

## GOIATZ ARANA | ARETXABAETA

Arizmendi Ikastolako Kirol Elkar-teak futboleko eta areto futbole-ko taldeen aurkezpena egin zuen bariku arratsaldean, Aretxabale-tako Ibarra kiroldegian. Eki-pazio berria soinean, kantxa erdira irten eta argazkitarako posatu zuten, modeloen moduan. Jantzi berriak zituzten, bai, ikas-tolak bere etapa berrirako auke-ratutako logo eta koloredun jantziak: arraia berdeko kamiseta granateak, eta galtza eta galtzer-di beltzak. "Enbaxadore onak dira hauek, astebururo bueltaka

dabilta-eta. Talde hauek ateratzen dute aurrera, batez ere, Arizmen-di Ikastolaren izena", zihoen Gari Ibartzabalek, aisialdiaz arduratzen den Arizmendiko Kulturgunea proiektuko arduradunak.

Ikastolak orain gutxi aurke-ztu duen etapa berriak izango du isla, beraz, kirol taldeetan. Baina eragina horretara mugatuko da oraingoz, helburuek lehengo ber-dinak izaten jarraitzen dutelako: parte hartzea, ondo pasatzea eta Arizmendiko ikasleen nahiz herri-ko neska-mutiko gazteen artean kirola sustatzea.

## Aurkezpena

Egubakoitzeko ekitaldian egon ziren: Aretxabale-tako eta Esko-riatzako futbol eskolako neskak; haur, kadete eta senior maileta-ko neskak; haur, gazte, kadete eta senior mailetako mutilak; eta haur eta kadete kategorietako areto futboleko mutilak.

## Nobedadeak

Mutiletan, gainera, nobedadeak dituzte aurten: haurren talde berri bat eta senior mailako tal-dea atera dituzte aurrera: "Ariz-mendi Kirol Elkartean mutiletan

senior kategoriako talde bat aurre-ra ateratzen dugun lehen aldia da, baina UDAK hiru talderekin beharrea soilik birekin aurrera egitea erabaki zuela aprobetxatuz, geure gain hartu genuen talde bat. Orain arte gazte mailara arteko ekipoak izan ditugunez soilik, ondo datorkigu hori buka-tzen duten mutilei jarraitzeko aukera emateko", kontatu digu Ibartzabalek.

Neskei dagokienez, duela zor-tzi urtetatik, ahalegin handia egiten ari dira horiek ere futbolean murgiltzeko, eta lortu dute.



Neska-mutileen ekipazio berria. | J.A.

## Modalitate gehiago

Jantzi berriak eurentzako dira oraingoz, baina besteentzako ere izango dira: izan ere, badira sail gehiago Arizmendiren barruan: saskibaloia, squash, mendi las-terketak, igeriketa eta boleibola. Kasu batzuetan, Arrasate, Are-txabaleta eta Eskoriatzako kirol elkarteekin elkarlanean ateratzen dituzte aurrera taldeak.

250 inguru dira guztira, nes-ka eta mutil, erdi eta erdi. Bate-tik bestera ibiltzen dira, astebu-ruro, kirola praktikatzan, ondo pasatzen eta Arizmendi Ikasto-laren izena lau haizetara zabaltzen. Ez dago enbaxadore hoberik.



**ALAZNE ETA EIDER**  
KADETE MAILA

Atezain moduan lehenak eta aurrelari bezala bigarrenak, ahalegin denak egiten dituzte partidua irabazteko, nahiz eta ondo pasatzea bilatzen duten gehienbat. Ekipazio berria aurrekoa baino gehiago gustatzen zaiela aitortu digute.



**ARITZ ELORTZA**  
LEHEN ERREGIONALA

"Batzuk Mondran eta beste batzuk UDAn ibili eta gero, aurten elkarrekin jokatuko dugu lehenengoz eta asmo onekin gatoz. Jantzi berria oso polita da eta ilusioa egiten du, gauza berri guztiek moduan".



**IDOIA SANCHEZ**  
SENIOR MAILA

"Mailaz igota, aurten hiru atezain egongo gara talde berean eta, besteak ni baino nagusiagoak direnez, ikasteko ondo etorriko zaidalakoan nago. Aukera berria da eta ilusioz nago. Ekipazioarekin, konforme".



**IÑAKI SALABERRIA**  
GAZTEEN MAILA

"Mailaz igotzeko esperantza askorik ez dugu, baina ondo jokatzearekin eta, batez ere, ondo pasatzearekin konforme; gure ligakoak ere antzera dabilta. Ekipazioa ezberdina iruditu zait, kolorengatik, baina gustatu zait".

## DATUA

# 250

GAZTE

250 neska-mutil inguru batzen ditu Arizmendi Kirol Elkar-teak, modalitate ezberdinetan banatuta.

# KULTURA



Zapatu eguerdian, Txistulari Egunean, elkartutako txistulari taldea Arrasateko Arbolapetan. | L.Z.

## Txistulariek badihardute lanean txistuak gazte gehiago erakar ditzan

- ▶ 60 txistulari baino gehiago elkartu ziren zapatuan Arrasateko kaleetan
- ▶ Motibatze eta elkarrekin dibertitzeko balio izan zuen egunak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Nagusi zein gazte, gizon zein emakume, txistulari koadrila polita elkartu zen zapatuan Leintz bailarako III. Txistulari Egunean. Eguraldia lagun izan ez arren, 60 lagunetik gora elkartu ziren Arrasaten, txistuak, silboteak eta atabalak tarteko. Arrasateko taldea izan zen kopuruz handiena, baina Aretxabaleatik 11 lagun etorri ziren, Eskoriatzatik hamar bat, Soralezetik bi, eta Oñatitik

beste bi. "Txistua jotzeko aukera polita ematen du gaurko egunak, eta ez da gutxi!", esan zuen Lander Diaz de Gereñu oñatiarrak. Eta txistulari gehienak bat datoz: "Gero eta gutxiago entzuten da txistua kalean, eta gazteak erakarri egin behar ditugu".

Egunak une asko izan zituen: alde batetik, lagunartean egindako kalejira, hamaiketako eta bazkaria; eta bestetik, eguerdiko kontzertua, formalagoa.

Askorendako motibagarria izan zen eguna. "Ezagutzen dugu elkar, izenak-eta ezagutzen ditugu, baina elkarrekin ez gara hainbeste egoten, eta gaurkoa moduko egun batek horretarako aukera oso polita ematen du", esan zuen Jasone Altuna aretxabalearrak. "Aldameneko taldeekin kontaktua edukitzeko, eta motibatze ere bai. Eta noski, dibertitzeko; oso ondo pasatzen dugu gaurkoa moduko egunetan".

**Etorkizuna**

Gazteak badatoz, baina gutxi, eta txistulari gehienak kezkatuta daude etorkizunarekin. "Erreleborik ez dago", zioen Lander Diaz de Gereñu oñatiarrak. Soralezeko Domentx Ucinak, bestalde, ikasle faltaren aurrean Soralezeko musika eskolak txistu eskolak kentzeko hartu duen erabakiaren berri eman zigun. "Lortu behar dugu gazte jendea motibatzea", esan zuen.

**IGOR ERRARTE**  
ARRASATE

"Gutxitan egiten dugu kontzertu bat denok elkarrekin"

Arrasateko Udalaxpe txistulari elkarteak antolatu du aurten Leintz



L.Z.

bailarako Txistulari Eguna, eta balorazioa positiboa da.

**60 txistulari. Eguraldia lagun izan ez arren, bete egin da aurreikuspena!**

Bai. Esango nuke 65 txistulari ere elkartu garela. Batzuk ez dira goizeko kalejirara etorri, baina pentsatzen dut Herriko plazako kontzertuan iritsiko garela kopuru horretara.

**Txistularien topaketa da gaurkoa.**

Bai. Gure arteko harremana lantzea da gehienbat gaurko egunaren helburu nagusia. Elkar ezagutzen dugu gehienok, baina gutxitan egiten dugu kontzertu bat elkarrekin. Kaleak ere girotu ditugu apur bat, eta gaurko egunarekin txistua entzun da Arrasateko kaleetan. Ez da gutxi!

**Osasun ona du txistuak Arrasaten?**

Esango nuke baietz. Arrasaten 20 bat lagun gabilta gora eta behera, eta gazte jendea ere badator. Txistua musika tresna polita da: jo dezakezu ekitaldi berezietan, herriko jaietan, parrandan zabiltzanean... Kalean ibiltzea gustatzen bazaizu, oso ondo dago!



**JASONE ALTUNA**  
ARETXABALETA

"Aretxabalean txistuak osasun hobea du azken urteotan. Esan daiteke Leintz bailarako Txistulari Egunari esker dela hori; utzita zeukan jendea animatu egin da horrelako egunarekin. Gainera, kontaktua berreskuratu dugu aldameneko taldeekin, eta ondo pasatzen dugu. Oso motibagarria da".



**LANDER DIAZ DE GEREÑU**  
OÑATI

"Azken aldirian folklore kontuak ez dira oso popularrak, eta nabaritu egiten da hori Oñatin behintzat. Ez gara asko eta, gazteak etorri arren, jende gehiago erakarri nahian gabilta. Gaurko eguna garrantzitsua da. Eguraldiak ez du laguntzen, baina umorea ekarri dugu, eta gustura gabilta".



**AINHOA BARREIRO**  
ARRASATE

Zortzi urterekin hasi zen Ainhoa txistua jotzen, eta asko gustatzen zaio. "Egia da gero eta gazte gutxiagok jotzen dutela txistua, eta ez dakit zergatik izan daitekeen". Txistulari Egunak ondo pasatzeko aukera ematen duela dio: "Kalera irten, txistua jo, eta eguna lagunartean egin dugu".



**ASIER ALBIZU**  
ESKORIATZA

"13-14 bat laguneko taldea gara Eskoriatzan, eta urtean zehar egiten ditugu gure ekintzatxoak, baina sumatzen dugu gazteen falta, bai. Gaurko moduko egunak garrantzitsuak dira. Apur bat isolatua sentitzen zara zure herrian. Inguruko txistulariekin elkartu, eta nola doakien jakitea ona da".



# 315 trikitizalek eguraldi kaxkarrari aurpegi ona erakutsi diote



Begarako trikitixa eskolako gaztetxoak erromeria librearen saioa estreinatuz, plazako arkupetan. | MAIDER ARREGI

## Euskal Herriko Trikitixa eguna arrakastaz ospatu dute Bergaran

MAIDER ARREGI | BERGARA

Gure trikitixa eta panderoa osasuntsu daude: "Sekulako loraldia bizitzen ari da trikitixa. Euskal Herriko eskolak nola dauden beteta ikusi besterik ez dago", nabarmendu digu Agurtzane Elustondo legazpiarrak. Bera dugu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakaria. Balorazioa egiteko ere eskatu diogu: "Eguraldi kaxkarra izan dugu goizean, baina jendea animatu da. Sekulako giroa izan dugu eguerdi partean udaletxeko arkupetan. Herri askotatik etorri dira: Oñati, Azkoitia, Lezo, Pasaia,

Astigarraga, Donostia, Bergara... oso pozgarria da hori guretzat".

### Erromeria librea

Euriagatik, udaletxeko arkupetan inprobisatu zuten eszenatokia. Bergarako trikiti eta pandero-jotzaileek estreinatu zuten erromeria librea. Des-Kontrol edota Ken Zazpi taldeen triki-bertsioek jendea erakarri zuten. Txalo artean jaso zituzten parte hartzerantz animatu ziren gaztetxoak.

Ondoren, 315 bat lagunek bazkaria eta erromeria egin zituzten pilotalekuan, egunari bukaera borobila emateko.

## Familia giroan, Joseba Tapia

Karlistadetako istorioak izan ziren entzungai barikuan, Bergarako Tartufon, Joseba Tapia eta bere taldekideen eskutik. Bi urte igaro dira *Eta tira eta tunba* kaleratu zuenetik, baina oraindik ere harrera ezin hobea dauka. Haizezko instrumentuak eta trikitixa bikain uztartu ziren karlisten garaiko doinuak transmititzeko, eta, sorpresa moduan, bukaeran, bandako kide guztiak agertokitik jaitsi eta publikoarekin batu ziren.



Joseba Tapia eta bere taldea zuzenekoaren une batean. | JOSETXO ARANTZABAL



JONE ETA ZURIÑE  
OÑATI

"Eguraldiak ez digu askorik lagundu goiz partean, baina zaharren egoitzaraino joatea posible izan da. Erromeria librean parte hartuko dugu, plazan. *Itsasontzi baten* eta *Irlanda* abestiak prestatu ditugu gaurko. Ondoren, bazkaltzera kiroldegira joango gara denok batera".



ANDONI, UXUE ETA IKER  
ZUMARRAGA

"Aukera polita izan dugu gaurkoan jendea ezagutzeko eta harreman berriak egiteko; eta nola ez, baita ikasteko ere. Gu, baina, ez gara animatuko erromeria librean parte hartzera, momentuz. Gu ikustera etorri gara Zumarragatik. Ez dugu ezer prestatu eta ez dut uste Herriko plazan jarri duten eszenatokira joango garenik. Lotsa ematen digu, eta ez dugu ezer prestatu. Hala ere, oso ideia ona izan dela uste dut, asko ikasten da-eta besteei begira egonda ere".



GARAZI, MIREN ETA ENIA  
BERGARA

"Oso egun polita ari da izaten. Eguraldiak ez du asko lagundu, baina primeran ari gara pasatzen. Lagunak egin ditugu eta, gainera, gauza berriak ikasteko aukera izan dugu. Erromeria librean parte hartzeko denondako oso ezagunak diren kantekin propio egindako pupurri bat prestatu dugu. Minutu gutxi barru denen aurrera irtengo gara, irrikaz gaude! Oso ideia ona izan dela uste dugu; guri betidanik gustatu zaizkigu trikitia eta panderoa".

## Nazioarteko Organo Zikloa arrakastaz amaitu da asteburuan

Bukaera borobila eman zioten zapatuan Organo Zikloari, Bergaran. Goizean, herriko bi organo ikaslek –Lorea Larrañaga eta Eli Mendaraz– eta Azpeitiko beste bi ikaslek kontzertua eskaini zuten. Gauean, txalo artean hartu zituzten Aritzeta eta Etxarriko abesbatzak. Bikain uztartu ziren biak Aitor Olearen organoarekin.



JOSETXO ARANTZABAL





# Neurri txikiko tableta aurkeztu du Apple-ek

- ▶ iPad Mini izenarekin, Nexus eta Kindle-en lehia zuzena izango da
- ▶ Teknologikoki iPad berriena baino apalagoa da

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Espero zen guztia beteta, iPada- ren bertsio txikia aurki egongo da salgai. Hain zuzen, iPad-aren laugarren belaunaldiarekin batera aurkeztu du iPad Minia. iPhone 5a baino finagoa da iPad Minia - 7,2 milimetro - eta iPad-aren itxura berdintsua du, neurriak txikituta. Finagoa eta arinagoa ere bada, hirugarren belaunaldiko iPadaren erdia baino zertxobait gutxiago pisatzen baitu bertsio txikiak; esku ahurrarekin eusteko moduko zabalera dauka. Ohi moduan bertsio zuria eta bertsio beltza egongo dira eskuragarri. Pantailari dago-kionez, 7,9 hazbetekoa da eta erresoluzioa ez da azken iPaden berdina, lehen eta bigarren bertsioetan aurki daitekeena barik. Abantaila bat ere bada hau, izan ere, garatzaileek ez dituzte aplikazioen bertsio bereziak egin behariko iPad Miniarentzat, hasierako iPadenek balio dute. Prozesatzailea iPad 2 aren berbera da, A5 txipa.



iPad Miniaren aurkezpeneko irudi bat. | MARKETINGDIRECTO.COM

## Ezaugarri teknikoak

Ezaugarri teknikoagoi begira, *Lightning* delako konektorea dauka, iPad berrienak bezala, eta 10 orduko bateria iraupena. Ezaugarri horiekin eta jakina den moduan Kindle eta Nexus

modeloen lehia zuzen eta gogorra da, prezioarengatik ez balitz. Merkeenetik garestienara, 329 eta 529 dolarren artean balio dute modeloen giga eta konexio motaren arabera (16, 32 eta 64 GBko aukerak daude).

## Euskal kiosko digital bat kaleratu dute, PDFak jaisteko

J.B. | ARRASATE

Ordainduta eta PDF formatuan irakurtzeko, *Presst.net* izeneko kiosko digitala kaleratu dute Berria, Gara eta Noticias taldeak. Aleak erosi bai baina *on-line* bakarrik irakur daitezke ISSU webgunearen egokitzapen batez bitartez. Hile ala urteko harpidetza eginez gero, epe horretako aleak kontsultatzeko aukera ere ematen dut Presstek. Goizeko 5etarako, eguneko egunkari eta aldizkariak sarean egongo dira erabiltzaile guztien esku - egunkarien gehigarriak eta aldizkariak barne - eta behin ordainduta ala harpidetza izanez gero, automatikoki sartu ahalko da erabiltzaile edukira.

Abiatu denetik egun gutxi batzuk bakarrik igaro dira eta erabiltzaileek dagoeneko zabaldu dituzte lehen inpresioak. Ordaindu eta edukia eskuratzeko prozesua erraza bada ere, erabiltzaile askok salatu dute euren tabletan ezin daitekeela irakurri eta asko kexu dira irakurtzeko sistemaz eta PDF-ak ezin jaitsi izateaz.

## Europako domeinu bisitatueneen zerrenda

J.B. | ARRASATE

Interneteko audentziak neur-tzen erreferente den erakundeetako batek, ComeScore-ek, Europako 30 webgunerik bisitatueneen zerrenda egin du. Epe moduan eta lagin gisa aurtengo iraila hartu dute neurketarako. Ezusteko gutxi erakutsi ditu zerrendak, guztian, eta alde handiarekin, Facebook baita webgunerik bisitatuena, 266 milioi erabiltzailearekin. Lider absolutu horren nahiko atzetik daude Google eta Youtube eta deigarria da zerrendan laugarrena Wikipedia izatea.

## Herrialdeka

Herrialdeak aintzat hartzen baditugu webgune errusiarrak, alemaniarrek eta ingelesak daude goiko postuetan. Zerrendako webgune ia guztiak dira zerbitzuak ala sare sozialak. Edukiak jasotzen dituzten webguneei begiratzuz gero, Erresuma Batuko BBC hedabidearena da zerrendan agertzen den bakarra.

## Albisteengatik Google-i kobratzeko asmoa zabalduz doa

J.B. | ARRASATE

Frantzia, Alemania eta Brasillgo prentsa elkarteak aspalditik dabilta euren herrialdeetako gobernuak Google-i bilaketen emaitzetan agertzen diren albisteak kobratzeko presioa egiten. Jabetza intelektualaren aurkako ekintzat jotzen dute elkar-teek albisteak eskubideengatik ordaindu barik eskaintzea.

Alemanian honezkero hartu ditu neurriak eta *Lex Google* izeneko legearekin Google-ek hedabideei ordaindu egin behar-ko die Alemanian albisteen laburpentxo bat eskaintzeagatik. Frantziak eta Brasilek ere ante-

rako zerbait egin gura dute eta bide ezberdinak dabilta aztertzen.

## Lehen urratsak emanda

Ez dira, hala ere, Google-i mugak jarri dizkioten herrialde bakar-rak eta Belgikan, esate baterako, galarazita dauka Google-ek tutularraz gain albistearen inguruko beste informaziorik ematea. Frantzia neurri hau hartuko lukete filtratutako zenbait dokumenturen arabera. Kontuan izan behar da, hala ere, Google-en emaitzetan agertzeak milioika bisita ekartzen dizkiela hedabideei.



Surface tabletaren publizitate irudia. | ALTI040

## Windows 8a kalean da ordenagailu eta eramangarrietarako gertu

J.B. | ARRASATE

Kalean da modu ofizialean Windows 8a eta aldaketarik deigarriena interfazeak dakar. Metro izenarekin ezagutzen denak lehen pistak Windows Phone 7an eman zituen eta orain tablet eta ordenagailuetarako bertsioan antzerako diseinua dauka baina ordenagailurako bertsioak ere pantaila ukigarrietarako planteamendu bera aurkezten du. Aplikazioei dagokionez mugekin dator sistema berria eta Windows-ek bere Stre-ean baimendutakoak soilik ahalko dira instalatu. Apple-ek bere iOS-arekin egiten duen gauza bera.

## Sky Drive

Sareko biltegitarteak dauka garrantzirik nabarmenena sistema berrian. Sare sozialekin guztiz lotura dator gainera Sky Drive eta Facebooken ala Twitterren gehitutako argazkiak automatikoki gehitzen ditu erabiltzailearen kontura.

Sistema operatzailearekin batera horren atzean datorren apustua berriaz diseinatutako tableta da: Surface. Hain da benetan Windows-en apustua Apple-en dabilelako galtzen eta alternatiba eskaintzen berandu hasi dira Windowsekoak.

## Europar Batasuna Microsoft ikertzen dabil nabigatzaile aukera galaraztea egotzita

J.B. | ARRASATE

Europar Batasunak berriz ere kargatu du Microsoft Window- sen berez ezarrita datorren nabigatzailearenc gaiarengatik, nahi eta ez erabili behar baita Explorer hasiera baten.

Sententzia batek orain dela hiru urte Microsoft behartu egin zuen Windowseko panel baten bitartez erabiltzaileari

nabigatzaile aukera ematen baina azken eguneraketarekin desagertu egin da hori. Windows 7aren eguneraketan gertatu da hori eta akats bat izan dela dio Microsoftek. Hala ere, Europar Batasunak leporatzen dizkion kargu guztiekin plegua aurkeztu berri du batzordeak eta litekeena da isun ekonomiko bat ezartzea.

## COMSCORE-EN ZERRENDA

- ▶ Facebook.com
- ▶ Youtube.com
- ▶ Google.com
- ▶ Wikipedia.org
- ▶ Live.com
- ▶ Microsoft.com
- ▶ Yahoo.com
- ▶ Wordpress.com
- ▶ Mail.ru
- ▶ Vk.com
- ▶ Yandex.ru
- ▶ Adobe.com
- ▶ Apple.com
- ▶ Ask.com
- ▶ Odnoklassniki.ru
- ▶ Blogger.com
- ▶ Google.de
- ▶ Twitter.com
- ▶ Mozilla.org
- ▶ Dailymotion.com
- ▶ Google.ru
- ▶ Bing.com
- ▶ Ebay.com
- ▶ Google.fr
- ▶ Babylon.com
- ▶ Msn.com
- ▶ LinkedIn.com
- ▶ Google.co.uk

## TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



## Hauteskundeak eta gero zer?

Oraindik oso hurbil ditugu euskal legebiltzarreko azken hauteskundeak eta eguenero komunikabide askotan horietaz hitz egiten jarraitzen dute. Nor izango da lehendakaria? Ze gertatuko da galtaileekin?... Baina niri beste galdera bat etorri zait burura. Nolakoa izango da eib berria?

Bozketan ez zen horren argibiderik irakurtzen baina Urkullu Ajuria Eneara iristen den egunetik aurrera eib berri bat ezagutuko dugu. Eguraldi mapa berriak, aurkezle berriak, dantza solteko txapelketak... Irratian ere ahots berriak entzungo ditugu. Badi-rudi gure hauteskundeak demokratikoegiak direla, bozka bakarrarekin legebiltzara osatzeaz gainera komunikabide publikoak ere aukeratzen ditugu. Baina hori egitea zilegi dela uste duzue?

Badakit beti egin den kontua dela, baina horrek ez du ona denik esan nahi. Dena den, honekin batera, beste ohitura txar asko ere kendu beharko genituzkeela uste dut. Argi dago Ajuria Eneara iritsiko denak botere eta erantzukizun handia izango duela, baina eib gidatzen duenak ere ez du erronka txikia izango.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 29



## Harmailatik

2012ko Antxintxika Krosari buruz jardungo dugu eta baita Aloña eta Mondraren arteko derbiak ere. | 22:03

12:25 Magazinea  
13:10 Zorion Agurrak  
13:15 Onein  
13:37 Gipuzkoa kultura  
14:09 Ekogune  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Zorion Agurrak  
15:13 Jaiak: Euskal jaia  
15:36 Jaiak: Urriko lehen astelehena  
15:59 Musikaz Gain  
16:09 Ikusten  
16:41 Berriak  
17:01 Eguraldia  
17:04 Onein  
17:31 Hamaika.bit  
18:06 Beranduegi.tv  
18:29 Ekogune  
18:59 Jaiak: Urriko lehen astelehena  
19:22 Berbetan  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:18 Magazinea  
21:03 Gurean gaur  
22:03 Harmailatik  
22:48 Berriak  
23:08 Eguraldia  
23:11 Magazinea  
23:56 Harmailatik  
00:41 Gurean gaur  
01:41 Eguraldia

MARTITZENA 30



## Gurean Gaur

Tokiko telebistek eguenero elkarlanean egingo dako abistegia da Nagore Uriartek aurkeztutako saioa. | 21:06

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Harmailatik  
14:05 Hamaika.bit  
14:41 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Harmailatik  
15:53 Onein  
16:15 Gurean gaur  
16:45 Berriak  
17:05 Eguraldia  
17:08 Jaiak: Euskal jaia  
18:16 Beranduegi.tv  
18:40 Musikaz Gain  
18:50 Gipuzkoa kultura  
19:20 Ikusten  
19:52 Zorion Agurrak  
19:57 Berriak  
20:17 Eguraldia  
20:21 Magazinea  
21:06 Gurean gaur  
22:06 Berriak  
22:26 Eguraldia  
22:31 Harmailatik  
23:16 Magazinea  
00:01 Berriak  
00:21 Eguraldia

EGUAZTENA 31




## Ekogune

Jaime Ortiz de Urbina Euskal Herriko Hazien sareko kidea elkarrizketatuko du Julen Iriondok. | 22:02

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Hamaika.bit  
13:51 Harmailatik  
14:36 Musikaz Gain  
14:46 Berriak  
15:01 Eguraldia  
15:04 Onein  
15:26 Jaiak: Urriko lehen astelehena  
15:49 Jaiak: Euskal jaia  
16:12 Ur eta lur  
16:49 Berriak  
17:04 Eguraldia  
17:07 Harmailatik  
17:52 Zorion Agurrak  
17:57 Musikaz Gain  
18:08 Beranduegi.tv  
18:32 Zorion Agurrak  
18:37 28.Klip  
19:07 Musikaz Gain  
19:17 Berbetan  
19:50 Zorion Agurrak  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:18 Magazinea  
21:02 Gurean gaur  
22:02 Ekogune  
22:32 Berriak  
22:52 Eguraldia  
22:57 Magazinea  
23:42 Gipuzkoa kultura  
00:12 Berriak  
00:17 Eguraldia

EGUENA 1



## Gipuzkoa Kultura

'Oteiza eta Monumentalitate berria. Izarrak alde, Donostiarako hilerri bat' erakusketa eza-gutugoa dugu. | 21:44

10:00 28.Klip  
10:30 Bertso saioa  
12:32 Ekogune  
13:02 Zorion Agurrak  
13:07 Magazinea  
13:52 Onein  
14:20 Zorion Agurrak  
14:23 Berbetan  
14:56 Ikusten  
15:27 Ur eta lur  
16:04 Magazinea  
16:49 Musikaz Gain  
17:00 Ekogune  
17:30 Bertso saioa  
19:32 Eguraldia  
19:35 Jaiak: Euskal jaia  
19:58 Hamaika.bit  
20:34 Magazinea  
21:19 Beranduegi.tv  
21:44 Gipuzkoa kultura  
22:14 Musikaz Gain  
22:24 Bertso saioa  
00:26 Ekogune

EGUBAKOITZA 2



## Bertso saioa

Bizkaiko bertsolari txapelketaren lehenengo kanporaketa ikusgai izango dugu Goiena telebistan. | 13:58

10:00 Jaiak: Euskal jaia  
10:23 Ur eta lur  
11:00 Ikusten  
11:31 Zorion Agurrak  
11:36 Onein  
12:04 Beranduegi.tv  
12:28 Musikaz Gain  
12:38 Zorion Agurrak  
12:43 Magazinea  
13:28 Gipuzkoa kultura  
13:58 Bertso saioa  
16:00 Hamaika.bit  
16:36 Gipuzkoa kultura  
17:06 Ekogune  
17:36 Zorion Agurrak  
17:41 Ur eta lur  
18:18 Berbetan  
18:51 Ekogune  
19:21 Magazinea  
20:06 Beranduegi.tv  
20:30 Gipuzkoa kultura  
21:00 Zorion Agurrak  
21:04 Musikaz Gain  
21:14 Magazinea  
21:59 Gipuzkoa kultura  
22:34 Ekogune  
23:35 Jaiak: Euskal jaia

## ARRASATE IRRATIA

## 'Do it Yourself' topaketaren biharamuna

Gaur, zapatuan aretxabaletako plazan ospatutako Do it yourself, gantxilo eta puntu topaketaren biharamuna aztertu dugu. Horretarako hitzordu honen bultzatzaile Arantzazu Lagunilla izango dugu Arrasate Irratian zapatuko kontuetaz mintzatzeko 107,7 FM uhinetan.

## Garibai etxeko geltoki zaharreko Gazte bulegora

Martitzenean, urriaren 30a, Garibai etxeko geltoki zaharrrera joango gara, Dorleta Kortazar Gazte bulegoko arduradunarekin hitzordua dugulako. Hilero bezala, Gazte bulegora gerturatuko gara azken nobedadeak zeintzuk diren lehenengo eskutik entzun ahal izateko.


## 'Bazen behin bizitza' mahai jokoen zozketa aste honetan

Domu Santu eguneko aste honetan, Bazen behin bizitza deituriko mahai jokua zozketatuko dugu Arrasate Irratian. Etxeko txikiak giza gorputza jolasten aztertzeke aukera paregabea. Zozketan parte hartu nahi baduzue, deitu 943 25 05 telefono zenbakira edo bidali mezu bat [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera.

## TELE-ALBISTEAK

# Jorge Oteizari buruzko erakusketa berria 'Gipuzkoa Kultura'n

'Oteiza eta monumentalitate berria. Izarrak alde, Donostiarako hilerri bat' San Telmo museoan ikusgai



Jorge Oteiza eskultorea. | ZURUTUZA.EU

ANDER MONEDERO | ARRASATE  
Aste honetako *Gipuzkoa Kultura* saioak, urriaren 9tik azaroaren 11ra bitartean Donostiako San Telmo museoan Laborategian 'Oteiza eta monumentalitate berria. Izarrak alde, Donostiarako hilerri bat' ikusgai dagoen erakusketa berri emango du. Bertan, Oteizak Ametzagainen hilerri bat egiteko landu zuen proiektua dago ikusgai. Dokumentazio grafiko eta teknikoan, eskuizkribuen, hiru dimentsioko modelizazioen, testuen, ikus-entzunezkoen eta maketen bitartez eskultore oriotarraren proiektua azaltzen dute.

Bestalde Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Donostiako Kursaal aretoan emango duen kontzertuaren zati bat ikusteko aukera izango da. EOSak Michal Nesterowicz-en gidaritzapean eta Asier Polo biolontxelo jolearen laguntzarekin hiru piezaz osatutako 'Itsaso eta enigmak' izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Bertan, B. Britten, G. Erkoreka eta E. Elgarren pieza bana joko dute.

# Nekazaritzaren ondare genetikoaren galerari buruz hitz egingo dute 'Ekogune'n

EHko Hazien sareko kide Jaime Ortiz de Urbinak tokiko bariatateen haziei buruz hitz egingo du

A.M. | ARRASATE  
Nekazaritza ondarea; bizikleta bidezko merkantzia garraio eta banaketa; eta behin erabili eta botatzeko joeraz jardungo dugu.

Jaime Ortiz de Urbina Euskal Herriko Hazien sareko kidearekin jardungo du Julen Iriondok. Nekazaritza ondare genetikaren galeraren aurrean, tokiko bariatateen haziak jaso, gorde eta zabaltzen egiten dute lan, hainbat traba gaindituz. Izan ere, galarazita dago bide ofizialestatik erregistratuta ez dauden haziak trukatzeko bera ere, baserriarrek gisa horre-

tara lortu izan dituzten arren ehunka urtez tokira bikain egokitzeraino hobetutako haziak.

Txita iraunkortasun irizpideak oso kontuan hartzen dituen garraio enpresari buruzko erreportajea ere izango da *Ekogunen*. Donostiako enpresari hiri barruko merkantzia bizikleta bidezko garraio eta banaketan lan egiten du.

Berdekerietan, bestalde, behin erabili eta botatzeko joeraz jardungo du Julen Iriondok. Herriarrek, 'ohiko sardexka edo plastikozkoa?' galdera erantzungo dute.

## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Oier Guzman Orobengoa**  
Azaroaren 4an, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo-ondo pasatu eta patxo pila bat Jokin, aitaxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE  
**Maider Frutos Uribealzo**  
Azaroaren 3an, 8 urte.  
Zorionak, prexioxi! 8 urte jada gure neskak. Ondo pasatu zure egunian, maittaa. Patxo asko etxekeuen partetik.



ARRASATE  
**Luken Jimenez**  
Azaroaren 3an, 7 urte.  
Zorionak, Luken!  
Dagoeneko zazpi urte. Hurrengoko urtean zortzi eta gure mutikua Mondrara! Muxu bat aitaxo, amatxo eta Beñiaten partetik!



ARRASATE  
**Julen Villar Jimenez**  
Azaroaren 2an, 4 urte.  
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu eta patxo handi bat amatxo, aitaxo, amama, aitxona, Maialen eta Kanadakoan partetik.



BERGARA  
**Aitor Oregi**  
Azaroaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, aitaxo. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat Maddi, Ander eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA  
**Aritz Agirre Aldalur**  
Azaroaren 1ean, 10 urte.  
Zorionak, poxpolin!  
Heldu da azkenean zure zorion eguna, eh!  
Oso-osoa ondo pasatu eta patxo handi-handi bat batez ere Joanes eta Maiarren partetik! Mua!




ARRASATE  
**Nora Lana Ibabe**  
Azaroaren 1ean, 2 urte. Etxeko danen partetik zorionak eta patxo handi bat. Batez ere Markel eta Anderrek.



BERGARA  
**Jokin Alberdi Garitano**  
Urriaren 31n, 3 urte.  
Azkenian heldu da eguna! Zorionak! Oin bai mutil handi. Aitaxo, amatxo, Gorka eta guztien partetik oso ondo pasatu eguna.



BERGARA  
**Ane Jauregi Elorza**  
Urriaren 31n, 5 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, Ane. Ondo pasatu zure eguna. Pa, pa eta pa.




OÑATI  
**Enzo Elizburu**  
Urriaren 31n, 2 urte.  
Zorionak, bihurri!  
Ondo-ondo pasatu bigarren urtebetetze egunean! Holako *xalau eta guapo* jarraitu. Muxutu guxoak etxeko guztien partetik, baina bereziki Mariok.




ARRASATE  
**Beñat Jimenez**  
Urriaren 31n, 10 urte.  
Zorionak, Beñat! Zu bai futbolari ona! Muxu handi-handi bat aitaxo, amatxo eta Lukenen partetik!




BERGARA  
**Maitte Larrañaga Olabarria**  
Urriaren 30ean, 32 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, politxoi. Patxo handi-handi bat Elixabete eta etxeko danen partetik.




ARRASATE  
**Saioa Bergaretxe Astigarraga**  
Urriaren 30ean urtebete egingo dozu. Zorionak, sorgintxo, bereziki Arrateren ete etxeko guztien partetik.



OÑATI  
**Izar Ezkibel Bastida**  
Urriaren 29an, 4 urte.  
Zorionak, barritxu!  
Azkenian bete ditzuzu lau urte! Patxo potolo-potolo bat pillia maite zaittugunon, eta bereziki zure anaia Oierren partetik.



ARRASATE  
**Saul Atxa Bastida**  
Urriaren 29an, 8 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Mila muxu etxekeuen partetik. Bereziki Paul eta Laia.



ESKORIATZA  
**Eider Garcia Hermosel**  
Urriaren 29an, urtebete.  
Zorionak, maitia!  
Kandelatxuai putz ferte itxeko prest? Muxu asko danon partetik, politxoi!



ESKORIATZA  
**Danel Belategi**  
Urriaren 29an, 10 urte.  
Zorionak eta ondo-ondo ibili zure egunean, eta beti! Topera disfrutatu eta patxo pila bat etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Belen Muniategiandikoetxea**  
Urriaren 29an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Patxo handi bat Aratz, Sara eta Unairen partetik!




OÑATI  
**Danel Gomez Barrena**  
Urriaren 29an, 3 urte.  
Zorionak, potxolo!  
Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi-handi bana familixa danaren, eta betez be, Urkoren partetik.



ANTZUOLA  
**Oier Aldasoro Azkarate**  
Urriaren 28an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta etxeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Eider Muñoz Morales**  
Urriaren 27an, 7 urte.  
Zorionak, Eider! Ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetzean. Zelako handi ari zaren egiten! Musu potolo bat etxekeuen partetik.



ARRASATE  
**Iraia Gardoki Zumalde**  
Urriaren 26an, urtebete.  
Zorionak, Iraia! Aitaxo, amatxo eta familixa danaren partetik zorionak eta patxo pillo bat, txikitxue! Zenbat urte? Bat!



OÑATI  
**Unai Gomez Perosterena**  
Urriaren 26an, 7 urte.  
Bua! Zazpi urtiak harri horrek beste pixaiten al daue? Zorionak, xagutxo, eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE  
**Ekain Jimenez eta Nagore Aitzelai**  
Urriaren 26an Ekainek urtebete eta bere izeba Nagorek 35 urte beteko dituzte. Zorionak eta egun ona pasatu zuen senideekin. Muxu pila bat.



BERGARA  
**Nekane eta Ibon Gabilondo**  
Urriaren 26an, 38 urte. Zorionak, bikote! Ah ze bazkari ederra eman zenuten! Patxuak Saioa eta Elixabeteren partetik!



ARRASATE  
**Naia Etxabe Uribarren**  
Urriaren 26an, 10 urte.  
Zorionak, Naia! Muxu handi bat etxekeuen partetik! Maite zaitugu!



ARRASATE  
**Sandra Mariela Guevara**  
Urriaren 25ean, 27 urte.  
Zorionak, Mariela! Elaia, aitaxo eta familiaren partetik!



ARRASATE  
**Nora Otxandiano Jausoro**  
Urriaren 24an, 6 urte.  
Zorionak, Nora! Oso ondo pasatu. Pastelak kandel askotxo ditu aurten, itxungikoitzezu danak? Laguntxoak eta etxekeoak zurekin egongo gara egun berezi honetan. Patxo handi bat.



BERGARA  
**Haritz Bilbao Iñarra**  
Urriaren 24an, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun, eta musu handi bat Maider, Aran eta Ibonen partetik.



ESKORIATZA  
**Haritz Arrese Otamendi**  
Urriaren 24an, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Merixenda goxo-goxo bat prestatu egun handi hau ospatzeko. Pastela nire kontu, lasai!



ANTZUOLA  
**Beñat Azkarate**  
Urriaren 22an, 5 urte.  
Zorionak gure etxeko piratari. Amatxo, Amalen eta Ainhize.



ANTZUOLA  
**Oier Lopez Naranjo**  
Urriaren 21ean, urtebete. Zorionak, Oiertxo! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean! Mila muxu familiaren eta, batez be, amatxo eta aitaxoren partetik!



OÑATI  
**Izar Mendizabal Aiastui**  
Urriaren 20an, 7 urte.  
Zorionak, sorgintxo. Ondo-ondo pasatu zure egunean eta ea pintxo batzutara gonbidatzen gaituzun. Ane eta familixa danaren partetik.



OÑATI  
**Gorka Otxotorena Arratibel**  
Urriaren 20an, 33 urte.  
Zorionak, txiki! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat eta belarritik tirakada asko, txantxikutarren partetik.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitarkeok.  
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra.

Baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzen batera.

JAIOTAKOAK



**Ibai Carrillo Diaz de Zerio**

Iruñea. 3,790 kilo. Urriaren 14a. Gurasoak: Leire eta Igor. Argazkian, Ibai jaioberria aldamenean arreba Amaiarekin.



**Ibai Gallastegi Arana**

Aretxabaleta. 2,970 kilo. Urriaren 21a. Gurasoak: Olaia eta Aitzol. Argazkian, Ibai aita eta amarekin.



**Asier Rubio Rodriguez**

Bergara. 3,700 kilo. Urriaren 19a. Gurasoak: Claudia eta Victor. Argazkian, Asier ama eta aitarekin.



**Ekain Ariznabarreta Jauregi**

Soraluze. 3,100 kilo. Urriaren 19a. Gurasoak: Iosune eta Ander. Argazkian, Ekain amaren besoetan.



**Peru Azkarate Larrea**

Bergara. 3,120 kilo. Urriaren 21a. Gurasoak: Mireia eta Alex. Argazkian, Peru sehaskan.



**Ane Urzelai Ibabe**

Antzuola. 3,820 kilo. Urriaren 18a. Gurasoak: Miren eta Ekaitz. Argazkian, Ane aita eta amarekin.



**Auritz Lariz Reboredo**

Ziortza-Bolibar. 3,890 kilo. Urriaren 23a. Gurasoak: Iratxe eta Juanan. Argazkian, Auritz jaioberria sehaskan lo.



**Oxel Souto Lasa**

Arrasate. 3,330 kilo. Urriaren 24a. Gurasoak: Kizkitza eta Patxi. Argazkian, Oxel jaioberria gurasoekin.



**Maia eta June Armendariz Eriz**

Aramaio. 2,900 eta 2,400 kilo. Urriaren 24a. Gurasoak: Oihana eta Josu. Argazkian, Maia eta June amarekin.

**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.

Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkaritza batera.

DENBORA-PASA


HITZ GEZIDUNAK

	* Eskoriatza-ko elizatea	Malgu, zalu	Optimistak
	Mahai estalkia	Amodio	Oinarritzko edaria
	Ebaki sakon		
	Hizki baten izena		
Pinuaren hazi	Xumeak, apalak		
Erroibarko herria	Lo		Oxigenoa
			Eguna
Gabonetako kanta		Diru, bokalik gabe	
Bi zati bi		Ipar EHn, izu	
	Kontinente bateko		
	Ingalesen baldintzetan		
Gipuzkoan, zain		Eraitza	
Musika lan handiak		Bokal biribila	

LUMA / ARGAZKIA: GARIKOITZ ESTORNÉS ZUBIZARRETA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	A	I	N	O	F	N	S
A	Z	U	A	I	Z	A	
R	A	S	A	T	B	A	
D		V	L	A	O	N	
K	L	A	K				
I	A	U	R	Z			
B	Z	M					

M	J	S	H	K	A	Z	K
A	R	U	R	I	A	E	A
V	U	A	H	B	J	M	O
I	A	G	R	E	Z	X	A
N	O	N	N	E	N	N	Z
A	N	N	B	E	A	X	G
T	B	M	T	A	L	I	A
S	X	L	C	S	L	G	H
E	M	A	E	N	I	A	P

6	6	4	7	3	5	1	8
5	3	7	2	9	6	1	8
2	6	5	9	1	8	4	7
9	7	4	1	8	5	3	6
4	2	8	6	7	1	3	5
7	3	6	9	4	2	8	1
1	2	3	7	6	9	5	4
5	7	4	3	2	8	9	1
1	3	2	8	9	6	7	3
9	8	6	4	1	5	2	7

SUDOKUA

	8		1	2	3
			2	8	
	2		6	5	4
3			4	8	7
	9	8	7		
7					
6			8		
		7	2		5
8	2	5	7	4	9


HIZKI SALDA

Topa itzazu Europako bost estatu.

P	O	L	O	N	I	A	M	E
G	H	I	K	C	S	L	X	S
I	T	A	L	I	A	B	M	T
X	G	T	U	B	E	A	N	O
Z	H	K	N	E	N	N	A	N
X	A	G	R	E	Z	I	A	I
N	O	M	J	B	H	A	U	A
A	R	U	J	R	I	A	E	A
K	A	Z	A	K	H	S	J	M

HIEROGLIFIKOA

Aspaldian ikusi duzu Mitxel?



Hieroglifikoak: laz herrian (la-z(h)err-n).

## AI, ENE!

### Saltoka, saltoka, nabil ni gustora...

Uste genuen Calatravaren zubiak zirela ikusgarrienak. Argazkikoak, baina, denei irabazten die; baita dibertsioan ere.

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## AHOBERO

### "Bortxaketa ostean haurdun geratzea Jainkoak hala gura duelako da"

RICHARD MOURDOCK | SENATARI AMERIKARRA

Abortuaren aurkakoa da Mourdock senatari errepublikanoa eta ez da bere ideiak defendatzearen hautsak harrotzen dituen lehen aldia. Hark esandakoa horrela bada, zer pentsatuko du Jainkoaz bortxaketa jasan eta gero haurdun geratu den emakumeak?

[www.elpais.es](http://www.elpais.es)

## EGURALDIA



Max. 14°

Min. 2°

Eguraldia hobera egingo du nabarmen baina egunaren hasieran hotz handia egingo du. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2012-10-29

## HAMARREKOA

**Ander Arzak** Txingudi Telebistan hasi zen irundarrak ez ditu ahazteko Parisen korrespontsal moduan emandako lau urteak; orain, egunak utzitakoen berri ematen digu gaueko 'Gaur Egun'-en | TXOMIN MADINA

## "Txalotzekoa da herri hedabideetako jendearen lana"

**1. Informazio aldetik udazken beroa ari da izaten. Nola daude estres kontuak?**

Aztoratuta. Hauteskunde gauaren ostean oso gaizki egin nuen lo. Orain hasi naiz apur bat erreku-peratzen; baina bai, giroa gori-gori dago erredakzioan. Gustatu arren, urduri samar ere banago.

**2. Hauteskundeetan politikariak moderatzen ikusi zaitugu. Zenbateko plusa du horrek?**

Oso interesgarria eta baikorra iruditzen zait, eurekin zuzenean hitz egiteko aukera dugulako. Kamerak itzalita eta lasaiago daudela nolakoak diren ikusita oso esperientzia baikorra izan da.

**3. Itzuliko da ekonomia informatiboetan zuen bigarren mailara?**

Espero dezagun; kontatzeko astuna da, kezkarria da gertatzen dabilena eta garaia da honi buelta emateko. Ekonomiaz ikasi behar izan ditut: guk ulertzen ez badugu, kostata ulertuko dute ikusleek.

**4. Parisko urteak gogoratzean, zer datorkizu lehenengo burura?**

Batetik, egindako lagunak: beste kazetariekin oso harreman ona izan nuen. Bestetik, maila profesionalen bizitakoa: hemen babes-tuago zaude eta atzerrian, bakarrik egonda, erronka izan zen.

**5. Egun, korrespontsalia bat eskainita, nongoa aukeratu zenuke?**

Erromakoa, Italian: iruditzen zait han gauza asko gertatzen direla eta EITBk ez dituela kontaktzen.



### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

#### "Bidegabekeriak amaituko nituzke"

"Aukera izanez gero, egun gizartean dauden bidegabekeria guztiak bukatuko nituzke. Gaur egun, gainera, krisiarekin lotuta daude asko; beraz, bide batez, horiek ere bukatuko nituzke. Krisiaren eragina pairatzen dutenei laguntzen saiatuko nintzateke".

**6. Zertan nabari zaizu toki hedabide baten hasi zinela?**

Herri telebistetan aritutakook badakigu askotan oso zaila dela baliabide gutxiarekin gauzak aurrera ateratzea. Uste dut askok baino gehiagok baloratzen dudala ETBk dituen baliabideekin lan egitea. Txalotzekoa da herri hedabideetako jendearen lana.

**7. Egun txarra daukazu; ikusleok nabarituko al dugu?**

Nik uste dut ikusleek ez dutela nabaritzen, eta hori da niri dago-kidana: guztiaren gaintetik betikotasunari eustea. Baina lagunek edo amak esan izan didate: "Zer gertatzen zitzazun gaur?".

**8. Aktore senari kasu egin izan bazen, non egongo zinen orain?**

Batek daki, akaso Hollywooden! Ikastolan-eta antzerki tailerrak egin arren, kazetaritza aukeratu nuen; lanbideak irentsi eta oso gustura nago informatiboetan.

**9. Zer pasa behar du Anderrek Irungo San Martzialetan kale egiteko?**

Orain arte ez da gertatu. Beti esan izan dut kazetari moduan leku eta une historiko baten ego-tea gustatuko litzaidakeela; beraz, orduan, akaso.

**10. Aurten Kazetaritza ikasten hasi denari aholkurik ematekotan...**

Lanbidearen egoera eta baldintzak ez dira onak, baina, benetan gus-tatzen bazaio, ekiteko esango nioke, oso polita da-eta. Baita informazioa jarraitzea ere.

## BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Lege-bihurketaren zain

Euskadiko azken hauteskundeen ondoren agintean izandako bi alderdiei erreparatuko diet gaurkoan. Jakina denez, (Herri) Batasuna legez kanporatu ondoren iritsi zuten aginpidea PSOEek eta PPK..

PPrenak ulertzeko urriaren 17ko Berriak ekarri zuen argazkia dut lagungarri. Argazkian euskararik ez dakien Basagoitik alderdiaren euskarazko eslogana erakusten du, baina berak ezin du irakurri ere egin alderantziz jarria daukalako! Argazkia, ezinbestean, PPren paradigma bihurtua dago ez PPK, ez Basagoitik asmatu baitute Euskadiko jendea ulertzen.

PSOEn ere, baina, ez dago argitasun handiagorik. Trena galdu ote du Lopezek? Ez, ez du trenik galdu, bai zera! ETAREN su-etenaren iragar-penean EEBBetan zihoan tren berean segitzen baitu oraindik ere, orain paisajista bihurtua.

Eta hemendik aurrera, zer? Dena galdua da?

Herritarrok, agian, bai baina PPK eta PSOEek ez dute ahaztua ETAREN mehatxuen-gatik kanpora joandakoek Euskal Herrian ere botoa emateko eskubidea izango dutela, bidean diren errolda-bihurketak legez-tatu ondoren. Horretan dira orain kontuak..

**bai euskarari**

www.facebook.com/baieuskararizurtagiria

@baieuskarari

www.baisarean.org

Euskara, kalitatezkoa, profesionala, gertukoa, konfiantzazkoa, liderra, aberatsa, lehiakorra...

urrats biziak  
[www.baieuskarari.org](http://www.baieuskarari.org)



laguntzailea: **goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA